


50 urtetan berriz ere txapelidun

«Txapel hori nerea da» erranen zuen Mikel Mindegia aizkolari beteranoak Doneztebeko frontoira sartu orduko. Erran eta egin. Nafarroako Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finalean gibelean utzi baitzituen Nazabal eta Senosiain bezalako aizkolari gazteak. Mindegia bera zen alde zuzenetik aurretik faborito nagusia. Euskal Herriko txapelketan ere sasoi ikaragarria erakutsi baitzuen.

28



“Oraindik erretiratzea erabaki ez badut ere, txapelketetan parte hartzeaz nekatu naiz”.



3 Elkarriketa: Leitzako Kultur Taldea eta Euskara Zerbitzua

Bi talde hauek argitaratu dute «Leitzaketa» jokoak, Leitza eta Lehiaketa hitzak elkartuz sortzen dena. «Leitza ezagutzeko jostaketa» dela erran digute, eta Olentzero edo Erregetako opari ederra dela uste dute. Denerata 1.000 galdera biltzen ditu jokoak, «guzti-guztiak Leitza-rekin zerikusia dutenak».

4-5 Erreportaia: Udal hautetsien bilera

Bortzirietako alkate eta zinegotziek bilkura egin zuten azaroaren 17an Lesakan. Buruan dituzten kezkek plazaratu eta elkarlanean aitzinera egiteko asmoa erakutsi zuten alkate-zinegotziek. Horrez gain, Miguel Mari Irigoien eta Jose Luis Etxegarai Etxalar eta Lesakako alkateak elkarriketatu ditugu. Arrakoizko industrialde berriari eta Lesakalrun arteko errepideari buruz aritu zaizkigu.

6 Iritzia: Eskoletan ordutegi trinkoa edo zatitua?

Galdera hori luzatu diegu Doneztebeko institutuko zuzendariari, Baztan Ikastolako guraso bati eta Toki Ona institutuko ikasle bati.

33 TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



MUEBLES

Telletxea

GABONETARAKO
ESKAINTZAK

Hilabete osoan,
Erregeak bitarte,
%10eko deskontua
dekorazio
artikuluetan



Rosa Seminario z/g • Tfnoa: 948 45 02 58 • Doneztebe



19 urteko
esperientzia
zure
zerbitzura

E Z K A L O

Jose Antonio Elizondo Jauna

INFORMAZIOA: 948 451 518 / 600 38 74 08 / 666 20 63 10 (Doneztebe)

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Erresistentzia handiko diseinuarekin eraikia, arin-arina eta **korrosioaren aurkako** produkturik hoberenekin eta merkatuko **isolatzaile eraginkorrenekin** (poliuretano hedatuarekin) tratatua.

- **KANPOKO PARETAK:** Betirako diseinuaren aberastasuna. Sandwich panelak, mundu mailako enpresa handiek gaur egungo prozedura aurreratuarekin tratatuak, iraupen luzerako pentsatuak eta mantenimenduan denbora gutti eskatzen dutenak.

- **KANPOKO ZURGINTZA:** Dena prestazio goreneko aluminiozkoa. Climaltit kristalarekin, pertsiana teknikoak eta diseinu aurrerakoia duen atea eta **zerraila blindatua**.

- **TELATUA:** Garantia guzti duten materialeekin eraikia, isolatze termiko eta akustikoa bermatzen duten kalitate oneneko isolatzaileekin, prestazio oneneko teilekin, ezaugarri bereziekin.



2.500.000 ptatik aitzinera

ETXE PREFABRIKATUAK

- Norberak egon nahi duen tokian egotea bezalakorik ez dago.
- Pertsona baten bizi-kalitatea baloratzeko orduan premisa hagitik garrantziatsua da hau.
- Bizitzeko tokia aukeratzea, ernatzean leihotik ikusi nahi den paisaia, zure etxea beti amestu izan duzun tokian jartzearen plazera.
- Arazo ekonomiko guzietan eta ohiko etxebizitzek ekartzen dituztenei ihes egin...

DATUAK.....

Leitzako Kultur Taldea eta Euskara Zerbitzua *Jokoaren egileak*

“Herria hobeki ezagutzeko modu entretenigarria da Leitzaketa jokoak”

NOLA BURURATU ZITZAIZUEN LEITZARI BURUZKO MILA GALDERA DITUEN JOKU HAU ARGITARATZEA?

Herri baten kulturen eta nortasunaren alde lan egiten dugunontzat, herriak bere burua ezagutzea ezinbestekoa da. Munduko eta urrutiko berriak eta informazioa jasotzeko gero eta baliabide gehiago ditugu, baina zoritxarrez bertakoa, gure herriotako kultura, historia, ezaugarriak, hizkera, izaera... ezagutzeko bitartekorik ez dugu izaten. Horixe da sortu nahi izan duguna: Leitzari buruz hainbat gauza ikasteko modu atsegina.

EUSKARA ZERBITZUAK ETA KULTUR TALDEAK KALERATU DUZUE... GALDERA GEHIENAK EUSKARA ETA KULTURA GAIEKIN LOTUAK DAUDE EDO GISA GUZIETAKO GALDERAK PLANTEATZEN DIRA?

Mila galdera dira guztira, eta horien artean denetik aurkituko dugu: mendiak, errekek, etxeak, kirola, ohiturak, euskalkia, kultura, esakerak, pestak, eliza, pertsonai ezagunak, bitxi-keriak, toki-izenak... Nolanahi ere, 1.000 galdera dira, eta guzti-guztiak Leitzarekin zerikusia dutenak. Galdera oso



Leitzaketa jokoak, batez ere hamabost urte-tik gorakoentzat da egokia.

errezak, errezak eta baita zailak ere sartu ditugu.

Baina galderak zailak direnean, gehienetan erantzuteko 3 aukera ematen ditugu. Beraz, jokoak irekiada, edo nork parte har dezake.

NOLA JOKATZEN DA?

Galdera-erantzunen bidezko joko bat da. Galdera eta erantzunen bitartez, jokalaria ibilbide batean zehar aurrera egingen du, erantzuz-

nak asmatu ahala. Familian edo lagunartean jokatzeko balio du eta gutxienez 2 lagun behar dira jokatzeko. Hor-tik aurrera ez dago mugarik, eta banaka zein taldeka joki daiteke.

ZEIN HELBURU BETE NAHI DUZUE LEITZAKETA JO-KUAREKIN?

Leiza, bere historia, kultura, izaera, euskera, bizimodua... hobeki ezagutzeko bide erraz, atsegina eta entretenigarria sortu eta herri-tarrei eskeini nahi izan diegu. Beste helburu batzuk hauek di-

ra: herriaren nortasuna indartu; euskaren erabilerasustatu kalitatezko euskarazko produktu ba-

ten bitartez; herriarekiko atxikimendua sendotu; Leitzari buruzko hainbat gauza jakinarazi eta argitalpen batean kontzentratu; ikastetxeetan, euskaltegian, irratian... erabiltzeko materiala sortu... **ZER ADINEKO JENDEAREN-TZAT DA EGOKIA?**

Jokoak ez du adin mugarik, baina gazte eta helduentzat da egokia, 15 urtetik gorakoentzat batez ere. Herriko bi liburudendetan egonen da salgai, Maimur eta Astizen.

“Gaur egun, munduko eta urrutiko berriak eta informazioa jasotzeko gero eta baliabide gehiago ditugu, baina zoritxarrez bertakoa ezagutzeko bitartekorik ez dugu izaten.”

Leitzaketa joko bat da, «Leiza ezagutzeko jostaketa» hain zuzen. Izenak bi ideia biltzen ditu: alde batetik Leiza eta bestetik Lehiaketa. Hortik heldu da «Leitzaketa» izena.

Olentzero edo Erregetako opari ederra dela uste dute Leitzako Kultur Taldeak eta Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak, jokuaren egileek.

Bi erakunde hauen arteko elkarlana aspaldikoa da, «Egokia eta beharrezkoa denez, horrela jarraituko dugu. Oraingoz joko berririk ez dugu buruan, baina Leitzaketak ongi funtzionatzen badu, akaso galdera berriak aterako ditugu».

TESTUA :
AITOR AROZENA
ARGAZKIA :
JOSEBA AZPIROZ



UDAL HAUTETSIEIEN BILERA

Lesaka-Irun errepideaz eta Etxalarko industrialdeaz aritu dira Bortzirietako alkateak

Gure inguru honetako herriek kezka berdintsuak izaten dituzte: errepideen egoera, industriaren garapena, nekazaritza eta abeltzantzaren krisiari irtenbidea eman nahia, euskara, zaborren kudeaketa... Gai hauen inguruan elkar hartzeko eta indarra egiteko sortu ziren Udal Mankomunidade ezberdinak duela urte batzuk. Turismoa bultzatzeko Bertizko eta Plazaolako Partzuergoan ere bildu ziren. Udaletatik eta Mankomunidadeetatik gaindi ere bilera aunitz eginkatu dituzte elkarrekin inguru honetako alkate eta zinegotziak. Azken aldirian gainbehera egin dute bilera horiek, baina azaroaren 17an, Bortzirietako alkateak bildu ziren Lesakan, buruan dituzten kezkak plazaratu eta elkarlanean aitzinera jotzeko asmoarekin.

TESTUA: AITOR AROZENA

ARGAZKIAK: FELIPE SARAGUETA ETA ARTXIBOA

Mankomunidade ezberdinek egiten dituzten ohiko bilere-taz aparte, aspaldian ez ziren

bilduak Bortzirietako alkate eta zinegotziak, beraien kezken berri elkarri emateko eta elkarlanerako pausuak egiteko. Lesakan azaroaren 17an egindako bileran Bortzirietako bortz alkateak, Berako Josu Goia (EH), Lesakako Jose Luis Etxegarai (PNV-EA), Etxalarko Miguel Mari Irigoien (Herri Taldea), Arantzako Jose Ramon Amoros (EH) eta Igantziko Eduardo Migelena (PNV-EA) eta udal

zinegotzi batzugaritu ziren solasean. Lehenik, udalez gaineko erakundeetat aritu ziren, Cederna-Garalur eta Udalbiltza, Euskal Herriko Hautetsien Biltzarraz, hain zuzen.

Hasteko, aurten elkarteei, ekimen pribatuei eta Udaletxeei Cederna-Garalurerakundetik eman beharko litratekeen dirulaguntzetaz aritu ziren. Zenbait ekimen pribatuk ere eskatu dute dirulaguntza eta hori guziaz aztertu zen Lesakako bileran.

Cederna-Garalurreko organo erabakiorra eta zuzendari orokorra hautatzerakoan alderdi abertzale eta ez abertzaleen artean aferaren bat izan bazen ere, gai hori ez zuten ukitu Bortzirietako alkateek. «*Organo horre-*

tarako ordezkariak berezi behar zirenean sortu zen arazoa asanbladan, bai alderdi abertzale eta ez abertzaleen artean, baita herri ezberdinen artean ere. Zaila izan zen ordezkariak bereiztea eta errekklamazio bat ere izan zen, baina arazoa asanbladan bertan konpondu zen, bozketen ondotik» zioen Jose Luis Etxegarai Lesakako alkateak.

Inguruko Udalak Hautetsien Biltzarrera elkartzeko mozioa

Udalbiltza-Euskal Hautetsien Biltzarra erakunde iraunkorraren inguruan ere aritu ziren eta mozio bat aurkeztuko omen da eskualdeko Herriko Etxeetan, erakunde honetara elkartzea eskatuz.

Jose Luis Etxegarai, Udalbiltzako Mahai Iraunkorrean ari da eta bere lanaren eta mozioaren berri eman zuen: «Iruñeko batzarran emandako mandatuarekin lanean hasi zen Mahai Iraunkorra eta Bilboko Asanbladan Mahai hori behin betikoz osatu zen eta egin beharreko lanak zehaztu ziren. Asanbladak bortzlan talde osatzea agindu zuen. Bortzlan talde horiek osatu dira, bakoitzak geronen lana egin dugu. Orain dena martxan jarri behar da eta horretarako udal guziek konpromisoa hartu behar dute Udalbiltzako kide bezala. Orduan, mahaian garenok udal bakoitzari kide egin dadila eskatzen diogu mozio hori onartuz. Bere lanean tinko eta serio aritzeko nahitaezko babesada hori Udalbiltzarentzat». Lesakako alkatearen ustez, aurkez-

tuko den mozioa onartzeko ez da arazorik izanen inguru honetan. «Hemendik urte bukatu arte abertzale diren udal guztiak Udalbiltzako kide izatea da gure helburua. Mahai Iraunkorrean iragoenez gero, gaurko bileran zalantzak argitu nahi nituen, baina nabari da hemen jakinaren gainean daudela alkateak eta informazio nahikoa badutela».

Lesakatik Behobiarako errepidea eta Etxalarko industrialdea

N-121 errepideari buruz, eta batez ere Lesakatik Iruñerako tartean ere solastu ziren Bortziritako alkate eta zinegotziek. Afera aspaldikoa izan arren, Iruñetik oraindik ez dute argitu zer egingen den bide zati horretan.

Jakina denez, Endarlatsatik Behobia arteko bidea Gipuzkoako lurreen egon arren, Nafarroarena da XIX. mendean gerotik. Duela bi urte, 1997ko abenduaren 27an, Jose Ignacio Palacios eta Jose Julian Irizar, Nafarroako Gobernuko eta Gipuzkoako Diputazioetako Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilariak mahai berean eseritza lortu zuten Bortziritako alkateek. Orduan, Gipuzkoako ordezkariak «jabetza eskuratzea ez danahitaezko baldintza eta segur nago akordio batera ailegatuko garela» adierazi zuen. Bi urteren buruan, ez dirudi oraindik akordiorik dagoenik.

Azkenik, Etxalarko Arrakoitz inguruan egin nahi den industrialdeaz ere aritu ziren udal ordezkariak. ■

✎ Miguel Mari IRIGOIEN Etxalarko alkatea

«Alkaiagak izan duen arrakasta ikusita aitzinera egin nahi dugu Arrakoitzko industrialdearekin»



Etxalarren industrialde berria egiteko asmoak dituzue esku artean. Zertan da proiektua?

Alkaiagak izan duen arrakasta ikusirik, azken batean, 80.000 metro koadroetatik gehienak konprometitua eta zati handi batean eraikiak daudela ikusi da. Orduan, zonalde honek bokazio industrialdea duela nabaritu dugu, bertze sektoreak, abeltzaintza edo baserriak... larri dabilta, beraz, industria bultzatzearen beharra somatu dugu. Etxalarko Udalak badauka ideia bat, baina herrikoa baino gehiago eskualdekoa behar lukeela izan uste dugu. Errepideari nahiko itxekita dago, Arrakoitz inguruan eta

horretarako Iturriagoitia Industria kontseilariari bilera egitea eskatu diogu. Aitzinetik Bortziritako alkateek sinatutako idatzia bidali genion, horrelako inizatiba bultzatzea nahi genuela erranez. Orain abenduan egin nahi den bilera horren esperoan gaude, ea Gobernuak hori aitzinera ateratzerako konpromisoa hartzen duen.

Honelako proiektuetan arazo handia izaten da lur eremua industriarako erabili ahal izatea, bai udal planetan horretarako aurreikusia ez dagoelako edo kalifikazioetan aldaketak izaten direlako. Hortan ere arazoak izan dira?

Bai, lehendabiziko kalifikatu egin behar da eta hori arazo bat da. Lurra ere badu jabe bat eta jabearekin konponketa batera ailegatu behar gara, baina horren gainetik guk ikusten duguna da beharra eta beharra denean gestioak egin behar dira eta behar hori moldatu. Industrialdea berriro eskualdean egiteko gestioak egin behar dira eta ikusi horrek enpresa batzuk ekartzen dituen eta horrek lanpostuak sortuko ditu, dudik gabe.

✎ Jose Luis ETXAGARAI Lesakako alkatea

«Lesaka eta Irun arteko errepidean egin beharreko lanen berri ematea eskatu diogu kontseilariari»

leran. Zer berri duzue gai honen inguruan?

Hondarreko egunotan ikusi dugu egunkarietan Nafarroako Gobernuak emandako informazio bat. Bortziritako alkateek irailaren 22an bilera bat egitea eskatu genion Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilariari eta teknikariei. Kontestaren es-

peroa gaude. Tarte horretan kontseilariari Beran izan da Ibardingo saihesbidearen inaugurazioan eta han geunden alkateei bisita segidoan egingen zigula erran zigun, baina oraindik ez da etorri. Horregatik idatzi bat bidaliko diogu Bortziritako alkateen izenean, lehenbailehen etortzea eskatuz eta Lesakatik Iru-

nerako errepide tarte horretan zer egin behar duen argi dezala behingoz. Iruñetik Lesakara proiektuak badirela ikusi dugu egunkarietan—Zozai—Doneztebe tarte—eta lanak ere dexte aitzinduak daude zi zenbait lekutan—Larraitza, adibidez—, baina hemendik Irunera ez dago sobera argi zer egin nahi den.



N-121 errepidearen inguruan ere solastu duzue Bortziritako alkateen bi-

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe, Frederick Berruet,

Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz,

Oskar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubieta Sarakoudalak, Bortziri-

etako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.000 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 140 Libera

Europa ... 3.500 Pta.

Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Eskoletan lanaldi trinkoa edo zatitua?

Lanaldi jarrairi bai, baina eskolan bazkalduz eta gero aktibitateak eskainiz



Mikel ETXALAR
Mendaur institutua

Doneztebeko eskolan lanaldi zati-tuadugu. Izan ere, adin guzietako

ikasleen garraioa elkarrekin antolatua dago. Haur batzuk nahiko urrunetik etortzen dira, eta lanaldi trinkoa jarritz gero hagitz goiz ernatu beharko lukete. Hori da arrazoi nagusia. Dena den, beti interes desberdinak daude, batzuek nahiago dute ordutegi trinkoa.

Kontu honen inguruan ikerketak egin dira, eta ikasleen errendimendu aldetik ez dago inolako alderik bi ereduen artean. Orduan, kasu bakoitzean ikusi behar da zein den egokiena.

Nik, pertsonalki, bertze alternatibabat proposatuko nuke: lanaldijarraia, baina ikastetxean bazkalduta. Bazkalondoa kirola egin, jostetan aritu edo musika klaseak hartzeko aukera izanzen eskolan bertan. Gero 5etan etxera joan, baina dena egin ondok. Gure inguruan, herri ttikiak izanik, ikasle guzietan aukera berdina izanzen zitzuten horrela. Hala ere, erabaki hauek ongipentsatu beharrekoak dira. Gurasoei informazio aunitz eman behar zaio eta jakinaraz gainean daudenean askatasunez erabaki dezatela. Azken finean beraiek erabaki behar dute.

Ordutegi trinkoaren aldekoa naiz, horrela arratsaldea hobeto aprobetxatzen dut



Xabi LEIZA
lesakaka ikaslea

Mantenimenduko Erdi Zikloa ikasten ari naiz Bera-

Toki Ona Institutuan. Ordutegi trinkoa dugu, goizeko 8,30etan hasi eta arratsaldeko 3ak arte, alegia.

Ni ordutegi honen aldekoanaiz, horrela arratsaldea hobeto aprobetxatzeko aukera dut eta. Arratsaldeetan 4etatik aurrera musika talde batean jotzen egoten naiz, edo bertzenaz lagunekin horbarna, edo etxeko lanak egiten...

Oraingo ordutegian zerbait aldatzekotan, klase batetik bestera bost minutuko atsedena jarriko nuke, eguna ez dadin hain pisutsua izan.

Diotenez, goizean kontzentratzeko gaitasun gehiago izaten omen dugu ikasleok, baina ni ez nago horren seguru, gu klasera sartzen garen orduan, goizeko 8,30etan, oraindik erdi lo egoten baikara.

Gainera, eguneko azken orduak oso pisutsuak egiten dira, batez ere ostiraleko azken bi orduak, aste guzikoak gaineratzen zaizkigu eta.

Guraso Elkartearen ez dugu sekulan eztabaidatu ordutegia aldatzea



Aurelio ALBERTOS
Elizordoko gurasoa

Gureseme-alabak Lehen Hezkuntzan ari dira Baztan ikastolan,

goiz-arratsaldeko ordutegiarekin: 9etatik 1ak artio eta gero arratsaldean 3etatik 4,45ak arte. Guri ordutegi hori nahiko ongi egokitzen zaigu, haurrak ikastolatik ateritzen direnerako biek lana akitua dugulako. Noski, bertze familia batzuentzatez da horren proposa izanzen, baina hori ordutegi guzietan gertatzen da.

Ikastolako guraso elkartearen, dena den, ez dugu sekulan ordutegi hori aldatzea eztabaidatu. Iaz, haurrak Lekarotzera bidali behar zituzten gurasoen artean bazen nolabaiteko kezka ordutegi trinkoarekin, baina iduri du orain nahiko ongi dabiltzala ordutegi berriarekin.

Errendimendu aldetik, berriz, ez dut uste desberdintasun handirik dagoenik. Ordutegi jarraiarekin, izatekotan, ordu libre gehiago dituzte lagunekin jostatzeko, eta hori ere beharrezkoa da nere ustez. Gaurenguekin ez dute aukera handirik, egia erran. Gainera etxera ailegatzeko etxeko lanak izaten dituzte, edo ingeles klaseak edo solfeoa. Auniztan saturatuak egoten dira haurrak.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., @ 948133328+133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Merkatal errolda

Iruñean euskaldunak badaudela jakinik, eta euskaldun hauek beren hizkuntza erabiltzearen garrantzia jabeturik, KARRIKIRIK orain dela urte luze bat ekin zion ZERBITZUEN ERROLDA deitu dugun proiektua lantzeari. Proiektu honek, besteak beste helburu nagusi batzuk izango ditu, alde batetik euskarari buruzko datuak jaso eta diagnostiko ahalik eta zehatzena burutzea, eta bestetik merkataritza arloan euskararen erabilera areagotzea, dendari eta bezero euskaldunak harremanetan jarriz. Beraz, dendaz denda egindako lan honen ondorioa, euskara erabiltzeko aukera emango dizun komertzio zerrenda batda; zerrenda hau, egunez egun sendotuz doa, proiektua abiatu baita baina, ez bukatu.

Guk lokalizatu ditugun euskaldun hauek identifikatzeko, ondoan agertzen den irudia ikusi besterik ez duzu, honek adieraziko baitizu euskaldunak dauden lekua. Momentuan lan bat egina dagoenez, ezagutzera emateko momentu aproposa dela iruditzen zaigu, eta horregatik Iruñea hiriburua izanik Nafarroako beste herrietan ezagutzera ematea garrantzitsua iruditzen zaigu, bertako euskaldunentzat erabilgarria izan daitekeelako. Proiektu hau KARRIKIRIKO lagunontzat ez da kanpaina

soil bat, denborarekin Nafarroa eta Euskal Herriko euskaldunentzat euskararen erabilpena bermatzeko tresna garrantzitsua baizik. Beraz, honen bitartez animatu nahi zaituztegu Iruñera zaitozten euskaldun guztioi, gure identifikatzeko tresna izango den logotipo honi arreta jartzea eta honen bitartez euskara eta euskaldunon arteko harremanak sendotuz joatea, guztion ardurua baita gure hizkuntza esparru eta gizarte guztiko arloetara zabaltzea.

'KARRIKIRI'



IRUÑEKO EUSKALDUNEN ELKARTEA



OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

Toki Onako ikaslegoari

Lehenago egunean, azaroaren 16an, Toki Ona institutu-koikasleen ordezkariak Euskal Presoen eskubideak errespetatzearen aldeko geldialdia egiteko deialdia egin zuten. Zuzendaritza taldeak baimena eman ondoren, eta behin botazioak eginda, emaitza hagitz onak atera ziren. Hain zuzen ere 150 lagunetik 117 agertu ziren geldialdia egitearen alde, kontra 8 eta gainerakoek txuri edo ez zuten botorik eman. Azaroaren 18an, 4 orduko geldialdia egiteko eskubidea luzatu ziguten, eta 11etan enkartelada egiteko deialdia egin genuen. Enkarteladara

28 lagun bertzerik ez ginen bildu. Non gelditu ziren baiezkoa eman zuten gainontzeko 89ak? Hau ikusita lotsa eta amorrua ematen digu jendearen erantzunak. Esperodugu hurrengoan jendeak "ipurdia mugitzea" eta agindutakoa betetzea. Euskal presoen eskubideak errespetatu!

TOKI ONAKO IKASLE BATZUK



ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

Maderas GOMEN

- Era guzietako atea, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 99ko azaroak 15

«Harria barrenean duzun zerbait da, eta anaiarena oso gogorra izanagatik, aurrera segi beharra dago».

Mikel SARALEGI
Harrijasotzailea
LEITZA
Diario de Noticias
99-11-15

«Nekagarria da EH eta PNVko buruzagiak eskutik hartuak ikustea, karrikan gaudenoi muturrekoak ematen dizkiguten bitartean».

Jose Luis ETXEGARAI
Lesakako alkatea
Diario de Noticias
99-11-26

«Gaur egungo txapelketa sistema aldatzea orain dela 15 urteko egoerara bueltatzea izanen litzateke».

«Lau terdiko txapelketak interes pixar bat galdu du ikusleentzat, pilotari garrantzitsuak kanpoan gelditu direlako».

Inaxio ERRANDONEA
Pilotaria
BERA
Diario de Navarra
99-11-26

11 GALDERA LABUR

- ◆ **Txaruta pilota eskolako irakasle edo epaile gisara gustarago?**
- ❖ Pilota irakasle bezala, dudarik gabe.
- ◆ **Pilota partidua telebistatik ematen dutenean urduriago egoten da epailea?**
- ❖ Ez dut uste, berehala ahazten duzu.
- ◆ **Telebisten arteko borrokan itotzen ari da pilota?**
- ❖ Zorionez borroka akitu da eta hori pilotaren mesederako izanen da.
- ◆ **Noiz ikusiko dugu berriz Txaruta Interpueblos txapelketaren finalean?**
- ❖ Uf, zaila ikusten dut. Haundietan arras jende guti dugu, denak profesionaletan baitaude. Hemendik urte batzuetara akaso, ez dut itxaropena galtzen.
- ◆ **Eta Txarutatik profesionaletara igainen den hurrengo pilotaria?**
- ❖ Orain dela urte pare bat baino zailagoa da orain pasatzea. Ez zait gustatzen izenak ematea, baina hemendik urte batzuetara...
- ◆ **Lau terdiko txapelketa nork irabaziko du?**
- ❖ Gustatuko litzaidake Eugik irabaztea. Nagore eta bere artean egonen da.
- ◆ **Auniztan erraten da gaur eguneko pilotak sobera biziak direla.. zer iduritzen zaizu?**
- ❖ Hori egia da. 13 urte arte, Baztango txapelketan pilota goxoarekin aritzen dira eta Federazioan egin nuen proposamena, baina ez zidaten onartu.
- ◆ **Partidu berdinak soberatan errepikatzen direla ere erran ohi da...**
- ❖ Bi enpresetako pilotariak denen denen kontra aritzea izanen litzateke egokiena, eta epe laburrean hori gertatuko da.
- ◆ **Pilota telebistan agertzea nabaritzen da pilota eskolako haurren kopuruan?**
- ❖ Txarutan betidanik izan ditugu ume aunitz, baina nabari da eragina. Aurten inoiz baino gehiago ditugu, berrehundik goiti.
- ◆ **Goñi II zure eskuetatik pasatu da. Noraino iristen ahal da?**
- ❖ Gai hobereana berak du... %100ean prestatua dagoenean pilotari onena da.
- ◆ **Ilobaren epaile zarenearan, araudiak edo bihotzak agintzen du?**
- ❖ Reglamenduak beti. Txapelketako partidua bada, ni ez izatea eskatzen dut.



Juanjo ATXA
ELIZONDO
Pilota epaile eta irakaslea



egin zait ez harpidedun

URTE OSOKO TARIFA (BEZ barne):

Hego Euskal Herria 47.500 • Ipar Euskal Herria 59.000 • Espainia 47.500 • Europa 59.000 • Amerika-Afrika 145.000

Izen-abizenak **N.A.N** Tfnoa:

Helbidea Posta Kodea Herria Herrialdea

Ordainketa mota: Bankua Taloa Transferentzia Giro postala

(Banku bidez ordaintzekoak betetzeko) Banku edo aurrezki kutxa

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Titularra Tfnoa: Helbidea

Harpidetza-orrria bete eta bidali helbide honetara:

Baigorri Argitaletxe, S.A. • Portuetxe, 23 - 2.A • 20018 Donostia (Gipuzkoa)

Mendialdearen Eguna burutu zuten Bertizen hiru Partzuergoek

Bertiz, Plazaola eta Piriniotako ordezkariak bildu ziren

TTIPI-TTAPA

Nafarroako mendialdeko hiru turismo partzuergoetako –Bertiz, Plazaola eta Pirinioak– ordezkariak bildu ziren azaroaren 23an Bertizen eta Alman dozen egindako Mendialdearen Egunean.

Nafarroako Mendialdeko Turismo Mahaiaik antolatutako ekitaldian 90 lagun bildu ziren, udal ordezkariak eta establezimendu ezberdinetako nagusiak gehienak. Bertizen, lorategia eta Naturaren Interpretazio Zentroa bisitatu zuten eta gero, Alman dozko Beola jatetxera joan ziren bazkaltzera.

BERTIZKO PARTZUERGOKO 1992AN OSATU ZEN, PLAZAOLAKO 1993AN

Bertizkoa da Nafarroako Partzuergorik zaharrena, 1992an sortu baitzen. Urtebete beranduago osatu ziren Plazaola eta Piriniotakoa. Bertizko Partzuergoaren eragina ona izan dela adierazi zuen joan den astearteko bestan



Bertizko parkean paseatu zuten hiru Partzuergoetako ordezkariak.

Pantxo Iribarrenek, hainbat urtez Urdazubiko alkate eta gauregun zinegotzi eta Dantxarri-neako benta bateko nagusi denak. «Landa-etxe eta jatetxeen kopuruan nabarituda gehien bat. Gure komertzioetan ez horrenbertze, bezero gehienak frantsesak izaten baitira. Gaur egun hameka jatetxe ditugu Urdazubin. Lezeetan ere bisitari aunitz izaten ditugu, asteburu, Aste Saindu eta zubieta».

Severiano Txoperena Bertizko Partzuergoko lehendakari berria

Azaroaren 17an egindako Batzar Orokorran, Severiano Txoperena Matxikote, Lesakako zinegotzia (EAJ-EA) aukeratu zen Bertizko Turismo Partzuergoko lehendakari. Severianok, orain arte kargua bete duen Patxiku Oiartzabal Baztango alkatea ordezkatu du.

Honetaz gain, estatuok agintzen duten bezala, Administrazio Kontseilurako zortzi udal ordezkari ere aukeratu ziren (Partzuergoan zortzi elkarte direlako). Honako hauek hautatu ziren batzarrean: Baztan, Bera, Doneztebe, Igantzi, Etxalar, Sunbilla, Ituren eta Urdazubi.



Severiano Txoperena Bertizko Partzuergoko lehendakari berria.

EGUZKI OSTATUA

Era guzietako bokatak,
hotzak eta beroak
Kaxulak

Bazkari eta afari bereziak enkarguz

Erretegia

Legia, 39 - BERA - ☎ 948 631 012

OKAVE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA



Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE OSTATUA

Tfnoa: 948630259 - BERA

Alberto RETEGI abokatua

Altzate 17
BERA

☎ 948 630 763

Urte hondarrerako gas naturala jarriko dute hainbat etxetan

300 familiek izena ematea espero du Gas Navarrak

ASIER GOGORTZA

Berako etxeetan gas naturala jartzeko proiektua aurkeztu zuten joan den astean, kultur etxea jendez gainezka zegoela. Gas Navarra enpresako arduradunekin batera, Josu Goia Berako alkatea eta Jose Antonio Ayesa Usabiaga aritu ziren solasean, azken hau Nafarroako Gobernuako Segurtasun Zerbitzuko ordezkari gisa.

Erregai honen inguruko xehetasunez solastu ziren: ingurugiroa errespetatzeaz gain, erregai merkeena dela

erran zuten, gas naturala erabiltzen duten aparatuek gutti kontsumitzen dutelako. Bertalde, instalazio guztiak segurtasun haundikoak direla ere aipatu zuten.

Lantegietatik etxeetara

Herriko lantegi batzuk dagoeneko erabiltzen dute erregai mota hau, eta hortik etxetara bideratzera pauso bat bertzerik ez dago. Fundiziotara doaien hodi nagusitik ateriko dute herrirako gas naturala. Bi sareen arteko lotura egiteko estazio bat ja-



Berako plaza ondoan jarri duten bulegoa.

rriko dute Bortziriki karrikan, Agerrako futbol zelaiaren inguruan. Hortik, Agerra auzora eramane dute lehendabi-

ziko, abendu hondarre-rako seguraski, eta gero Bidasoa, Eztegarra eta Alzate karriketara hedatuko da. Legia, Suspe-la eta karrika tikiagoe-tako bizilagunek, ordea, gehixeago esperatu beharko dute gas naturala etxean izateko.

Joan den maiatzean sartu zituzten herrian barna gas naturalaren-tzako hodiak: denetara, 6,3 kilometro tubo sartu dituzte lur azpitik, hoiendiak herriko karriken moldatze lanak probetuz. Azpiegitura lanak 70 milioi gosta dira, eta 1999. urtea akautu baino lehen 300 familiek izena ematea espero dute Gas Navarrakoe.

Informazioa emateko bulego bat ideki dute Berako plazaren ondoan. Goiz eta arratsaldez egonen da zabalik.



Asier

Santa Zezilia eguna karrikara ateriz ospatu zuten musika eskolako ikasle eta irakasleek

Kale jira bat egin zuten herriko musikari gazteek azaroaren 23an, Santa Zezilia egunean. Ondotik, Musika Eskolan irakasleek abesti batzuk jo zituzten ikasleentzat, eta txokolatada eder batekin akautu zuten eguna.

flash

Kultur hamabortzaldia

Sara, Azkaine, Etxalareta Berako lau kultur taldeek antolatu dituzten kultur egunen azkeneko ekitaldia egingen da igande honetan, abenduaren 5ean. Herri arteko joan-etorriko lau herrietako taldeek hartuko dute parte, eta ongi pasatzeko jostetak egingen dituzte Alzateko frontoiaren inguruan. Ondotik bazkaria egingen dute Iamotenean.

Juan Gorriti

Artista honen lanak egonen dira ikusgai Kultur Etxean abenduaren 17tik urtarrilaren 10a arte. Egurra eta margo biziak erabiltzen ditu, eta ikastolak deituta jarriko du erakusketa Beran. Badakizue, 25. urterena ospatzeko.

Bertso paper lehiaketa

Abenduaren 13an akautuko da bertso idatziak Iamotenean aurkezteko epea. Adin guzietako bertsozaleek parte hartzen ahal dute, eta sari banaketa 18an egingen da. Irazu, Maia eta Estitxu Arozenaren bertso saioa izanen da ondotik.

Elkarriren solasaldia

Abenduaren 10ean, ortziralara, arratsaldeko 7,30tan, Bittor Aierdi Elkarriko ki-dearen hitzaldia izanen da Iamotenean.

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNÉKO MENJUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
© 948 631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagubozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES
© 948630155
BERA

© 948 631462
Alzate I • BERA

Xirgil

ZORIONAK

BOUTIQUE
Lulu
Besta eta ospakizun ezberdinetarako arropak
38tik 66ra bitarteko neurriak
Hondarribia, 15 gibeletik IRUN
Tfnoa: 943 616 165

Arrope, 14 Telf. 948 630130 BERA
Lentzeria, Mertzleria, Ekeabamea
ARTUR
ARROPADENDA

Haur arropadenda
0-16 urte arte
Guztia Etxeko Gazteentzat !!
Alzate, 24 Telf. 948 630 606 BERA
edurne

IPINGI Opariak
Jantziak
Santiago, 88 Telf.: 948 580 939
ELIZONDO

LESACA
Behoko Plaza, 8 Telf.: 948 627 514
Lentzeria
Dene

KAXULA
Eguberrietako opariak
LESAKako SARRERAN
Tfnoa.: 948 637 558

ADIDAS
ASTORE
ALTUS
LINE 7
NIKE
IPARLA
kirolak
Santiago, 51 Telf. 948 580585
ELIZONDO

ganbará
Opariak eta dekorazioa
Tfnoa: 948 451 921
Karrrika Nagusia, 19 DONEZTEBE

Amaya
Amezitia KARRIKA
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450163
Lurrindenda
Opariak
Estetika eta Kosmetika

Beatriz
ileapaindegia
Doneztebe
Eguberrietarako orrazkerak
Koloreak
Koloniak eta bitxiak
San Miguel Auzoa
948 450 922
DONEZTEBE

ERRETIRATUAK

Urte akabailako besta abenduaren 17an eginen du Arkupeak elkarteak Donezteben

Izena emateko epea abenduaren 5ean akituko da

TTIPI-TTAPA

Arkupeak erretiratu elkarteak abenduaren 17a aukeratu du aurten urte akabailako besta egiteko. 11,30etan Meza Nagusia izanen da Doneztebeko elizan, aurten hil diren lagunen oroimenean. Bertan, Eguberrietako kanta batzuk ere abestuko dira. Txomin Garmendia bertolaria ere arituko da. Meza ondoren, Arkupeak elkarteko ardura-dunek aurten egindakoa aztertu eta datorren urterako prestatu diren ekitaldiak aurkeztuko dituzte jendaurreko solasaldian. Gero, Nafarroako Gobernutik etorritako ordezkarien eta udal agintarien solasak etorriko dira.

1,30ak aldera bazkaria izanen da Bordatxon, azken urteetan ohikoa denez, Argetasko

Moderno jatetxeak zerbitzatua. Egun berezi honetarako menua ere aski goxoa prestatu dute: Frituak eta langosti-noak; arrain zopa, ume-rriaentsaladarekin, pastel txikiak eta txanpaina, ardoa, ura, kafea eta gainerako edariak. 4,30etatik 7,30etara dantzaldia izanen da eta arratseko 8etan abiatuko dira autobusak bueltan.

IZENA EMATEKO EPEA IGANDE HONETAN AKITUKO DA

Egun osoaren prezioa 3.000pezetakoa da eta prezio horretan bazkariak gain, zozketa baterako zenbaki bana oparituko da. Eguberrietako zozketahori arratsaldean eginen da Bordatxon bertan.

Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 26tik abenduaren 5era.



Bordatxon ederki bazkaldu ondotik bertan dantzan aritzeko aukera izanen dute erretiratuek, urtero bezala.

Artxibokoa

Hau da, igandea baino lehen eman behar da izena, Arkupeak elkartetik adierazi dutenez, egun horretatik aitzinera ez baita inor ere hartuko. Herrietako delega-

tuek berexiko dute autobusetan edo bakoitza bere autoan joanen diren eta izena ematera koan horren berri emanen da, baita autobusen irteera ordutegia ere.



PELUAGA

Emakumeendako moda eta osagarriak

Zure konfidantzazko denda

Colon Pasealekua, 7
Tel: 943 622816
IRUN



GABONETAKO DEKORAZIOA
Pinnak, argiak, bolak...

JOSTAILUAK
OPARIAK

Kanttonberri 8
Tel.: 948 630132
BERA

Bortzehun urte beteko dituzte ortzegunean herriko feriek

Arratsalderako pilota partidu ikusgarria iragarri dute

AITOR AROZENA

Herriko feriek bortzehun urte bete dituztela eta aurten zenbait ekitaldi berezi antolatu dira. Bezperako Merkatu Egunean, ohiko ajoarriero lehiaketaz eta musikaz gain, feriei buruzko solasaldia eskaini zen. Feriei buruzko argazki erakusketa ere zabalik egonen da bi egunetan Herriko Etxean. Feria egunerako ez da aldaketa aunitzik espero. Goizekoazienda lehiaketarekin batera, Saralegitarrak herri kirol erakustaldia egingen dute plazan. Ondotik, bertso saioa eta sari banaketa egingen da. Aurten, ohiko sariekin batera, plazara aurkeztutakoazienda ederrenari oroigarri berezia eskainiko zaio.

Arratsaldean pilota partiduederra ikusteko modua izanen da udal pilotalekuan: Titin III eta Goñi III, Aimar Olaizola eta Zezeagaren aurka. Plazako musika Alaitz eta Mainerrek paratuko dute.

Guggenheim eta Kafe Antzokira bisita ikastolaren urteurrenean

Tantirumairu Ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako



Azken urteetan, zaldi abereak dira plazara aurkezten direnazienda gehienak.

Argazkia: Idoia Telletxea

ekitaldien artean abenduaren 11n, larunbatean zortzi, Guggenheim Bilbo Museoa bisitatzera joateko bidaia antolatu da. Irteera, arratsaldeko 3etan izanen da Plaza Zaharretik eta museoko bisitagidatua, arratsaldeko 5etan hasiko da. Andy Warhol Bisita akautzerakoan, nahi izanez gero denborazainanda Kafe Antzokira joateko. Bertan, arratsaldeko 8etan, Joseba Sarrionaindiaren olerkiak eta kantak aditze ko aukera dago, Beñardo Atxaga, Jexux Mari Iturralde, Mikel Laboa eta Ruper Ordorikaren eskutik (sarrerak 800 pezeta balio du eta nor-

berak bertan ordaindu beharko du). Itzulera Bilbotik arratsaldeko 11etan izanen da.

Bidaia eta Museoko sarrera gidatuaren pre-

zioa 3.100 pezetakoa da. Bidai honetan parte hartu nahi dutenek, abenduaren 5a baino lehen eman beharko dute ize na Izarra okindegian.

Personaiak



Josefina SAGARDIA

Kasinoko patata-tortilla Estatuko onenen artean

Onena ez bada, Estatuko bionenen artean omen dago Kasinon egiten duten patata-tortilla, berriki Donostian burututako Espainiako lehenbiziko Gastronomia Kongresuan gertatutakoaren arabera. Epaimahaiko kideek 500 pintxo probatu zituzten lehenik, jabetxez jabetxe.

Finajerako bederatzi aukeratu zituzten, Kasinokoa barne. Bederatzi hiru gelditu zirenean tartean zegoen oraindik Lesakakoa. Lehen txandan Josefinaren tortillak lortu zituen puntu gehiago, baina berriz ere botua eman eta lehen saria Galizara joan zen. Josefinaren erranetan, «hagitz tortilla ximpleak egiten dituzte hor barna, arraultzea eta patatarekin bertzerik ez».

flash

Pepe Rei kazetariaren solasaldia Arranon

Abenduaren 11n, larunbata, arratsaldeko 7etatik aitzinera solasaldia eskainiko du Pepe Rei kazetari eta idazleak Arrano elkartearen. Alde batek, Ardi Beltza aldizkari berriaren aurkezpena egingen du eta bertetik bere azken bi liburuen berri emanen du: «Garzón, la otra cara» eta Durangoko Azokarako prestatu duena.

Paleta-goma txapelketa azken txanpan

Batzoki elkarteak hirugarren urtez antolatutako paleta goma txapelketa azken txanpan sartu da. Abenduaren 11n final laurdenak jokatuko dira, biharamonean finalerdia eta abenduaren 18an finala eta hirugarren eta laugarren posturako partidua.

Lurrindenda
Marian
endiberrri
Estetika
Behoko Plaza 8 • 948637791 • LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 948637518
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

BITTIRIA
HARATEGIA
☎ 948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

ETXALAR

126 dozena uso sartu dira Usategietako sareetan aurten

Iazko maila ez du harrapatu, baina ez da txarrenetakoa ere



Etxegintza bioklimatikoa

Solas arraro honen azpian, etxea toki egokian egin, alde argien eta bero-nera begira, material merke baina sanoez, inguruarekin ongi heldu dena, eta horrelakoak sartzen dira. Gisa horretara aritu zen Jabier Telleria arkitektoa azaroaren 24an, Herriko Etxeko Batzar-tokian. Bertako eta kanpo-ko jendez ia bete. Entzun genuenez, badugu zer ikasi.

PELLO APEZETXEA

Aintzineko urtean 160 dozenara ailegatu ziren, baina hori aspaldixko lortutako emaitzarik onena izan zen. Ehun dozena betegabe gelditutako urteak go-goan hartuta, urte txarra ez dela erraiten ahal da, behar bada.

Berezitasunen bat aipatu behar eta, Pilarika egunerako 60 dozenatik pasa ziren. Ipar haizea izan zennagusiurriko lehen egun horietan, usoak Etxalar aldera bultzatzen dituen haizea, sareetaratzeko laguntzaile haundiena. Gero haizegoa etorri eta neketsuagoa izan zen

usazaleen lana. Azaroak, berriz, mutur ilun eta gogorra erakutsi du, trepam baino txabolan egoteko hobe.

Uso ihizialdiari akabila bazkariarekin

Usazaleak denboraldiaren hondarreko egunean, azaroaren 20an, beren txabolan bildu ziren bazkaltzen. Eguraldi goxoagoa egin balu, sare inguruan ibiliko ziren, seguru aski.

Egun horretan, izan ere, eta azkeneko zortzi-hamaregunetan ere, egun hotz eta bustiak egin ditu. Eskopeta ihizian aritzen den zenbaitek ere, usazaleen gi-

sara akautu zuen uso denboraldia, mahai inguruan bilduta. Txabola barrenean, noski, hauek ere.

Larraburua elkarteak bere eguna

Xabierko San Franzisko gogoratzen dugun abenduaren 3a du bere eguna 168 kide edo

soziok osotzen duten Elkarteak. Bertzetan bezala, hildako elkarte-lagunak gogoratuko ditu mezan; hondar urtekoak, batez ere. Bazkaltzera bilduko da, gero, Larraburua etxean. Eta bertan omenduko ditu aurten 80 urte bete dituztenak: zazpi lagun. Bertze bi, Luis eta Joxe, urteak bete eta omenal-

dia jaso baino lehenxego joan zaizkigu.

Larraburuko Neguko mus txapelketa

Zortzigarren txapelketa hau azaroaren 21ean hasi zen, eta 2000garren urteko urtarrilaren bigarren igande arte luzatuko da. Hamasei bikotek hartzen dute parte. Eta, lehenbiziko egunean ikusi ahal izan denez, adina eta denbora txarra ez dira inolako oztopo. Halakoa da jendearen jokatzeko gogo eta ilusioa.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
948635290 **ETXALAR**

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • **LESKA**

LABEZAR
JATETXEA
948631076 • **BERA**

ttipi-ttapa
7.100 harpidedun,
25.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
948 631188

LEGARRA
Legarra, 9 • 948 637 030 • **LESKA**

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

HARITZPE
948635235
948635038
JATETXEA
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

IGANTZI

Aste hondar honetan hasiko dira Kultur Egunak

Euskara Batzordea eta Biltoki Elkartea izan dira antolatzaileak

OSKAR TXOPERENA

Igantzioko Euskara Batzordeak, Euskara Mankomunidadea, Igantzioko Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatutako Kultur Egunak aste hondar honetan hasiko dira.

Larunbatean, abenduak 4, arratsaldeko 6etan solasaldia izanen da Joxe Landaren eskutik, Biltokin: «Eguraldia eta ilargiaren eragina». 9etan Musika emanaldia Ataitz taldearekin, Zahar Etxean.

Igande eguerdiko 12,30tan Herriko dantzarien saioa izanen da frontoian eta arratsaldeko 7etan Antzerkia Hika Taldearekin Biltokin: «Arraultzade-likatuak».

Abenduaren 6an, as-

telehenean, 10etan eta 3etan haurrentzat jokoak izanen dira frontoian eta ondotik berendua. 7etan Gashenbrum II espedizioaren diapositiba emanaldia.

Abenduaren 7an, asteartea, arratseko 8,30etan Giltzarri Abesbatzaren kontzertua, elizan.

Azkenik, abenduaren 8an, asteazkena, egun guziz eskuz egindako laboreen erakusketa, Zahar etxean.

Arratsaldez Opilak eta sagardoa, frontoian

Lesakako errepidea

Azken aldi honetan Lesakako errepideko kunetak moldatzen ari dira. Jakinaenez, errepidea breñztatu zenean kunetak egin gabe gelditu ziren diruaren faltagatik. Orain, bazterretan gelditu ziren zu-

loak betetzen ari dira Herrikoetxeko langileek.

Bataioak

Udazkenean egin ohi diren bataioetan bi haur izan dira bataiatuak, Iker Etxarte eta David Begino. Ospakizuna azaroaren 2lean izan zen.



Joan den urteko Kultur Eguneko irudiak: taloak egiten eta barazki erakusketa ikusten. Aurten ere izanen da zer ikusi.

Argazkiak: Oskar Txoperena



GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

FOTOKOPIAK
txuri beltzean
KOLORETAN
PLASTIKAZIOAK
ENKADREKATZIOAK
DISEINU GRAFIKOA
IRUDI
INPRENTA
LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
KULTUR ETXE AURREAN
BERA
Tel-faxa: 948 63 15 21

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERBIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

Pinturak eta barnizak
689 042671 • 948 637556
Bittiria 37 • **LESAKA**
Mannel Zamorano
Barnizak eta Pinturak

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

ARANTZA

Udazkeneko hotza uxatzeko afari-berendua egiten dute asteazkenero gazteek

Gazte Asanbladaren Besta abenduaren 18an burutuko da.

ELIXABET ETA GARBINE

Udazkenanahiko hotza ailegatu zaigu aurtegoan. Lehendabiziko elurak ere ikusi ditugu herrian eta bertakook, hotzari ihes egin nahian elkartzen gara berokian. Horrela, pasa den hilabeteaz geroztik astero asteazkenetan Zuzaina ostatuan elkartzen dira gaztean afari-berendua egiteko. Lehendabizi gaztaina jatearekin hasi ziren eta hogeit bat gazte bildu ziren. Harrera on hori ikusita, hurrengo asteetan opil-jatea, tortilla-jatea eta oilasko-jatea egin dute. Denentzat irekiak daude afari-berendu hauekin aitzinera segitu nahi da eta erran bezalaxe, asteazkenero biltzen jarraituko dute, ilunabarretan giro ederrean elkarrekin egoteko. Ez da plan txarra!



Mahaiaren inguruan otordu xume baten biltzea, udazken honetako hotzak uxatzeko gazteek aukeratu duten modua. Artxibokoa

Medikuaren etxea moldatu dute

Medikuaren etxean egiten ari ziren obrak akaututa daudela jakinarazi du Herriko Etxeak. Milioi bat pezeta kosta diren obra

hauek, gehien bat kanpoko aldean egin dira, leihoak eta pertsianak moldatu eta margotze lanak. Joxe Migel Errandonea zurginak eta Igantziko Joxe Agerrek egin dituzte moldaketa

hauek eta hemendik aitzinera medikuaren etxeak bertze itxura bat izanen du.

Kanposantuari buruzko bilera

Kanposantuaren be-

ritze lanak direla eta, larunbat honetan Herriko Etxean bilera egin zen. Interesatuak Herriko Etxearen informazioa jaso zuten.

Gazte Asanbladaren besta abenduaren 18an ospatuko da

Oraindik egitaraua guztiz lotu gabe badaogo ere, Gazte Asanbladak besta antolatuko du abenduaren 18rako. Gazteen asmoa, karrikan antzerkitxoak egiteko prest dauden lagunak biltzea da, bakarka nahiz taldeka. Gero, afari xume bat egin eta musika talde bat ekarri nahi dute, gau giroa alaitzeko.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735

KOXXILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

ALDO OSTATUA

LESAKA

Ostargi Optika

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Haurrei errebisioa egiten zaie

Eta behar izanez gero... ERA GUZTIETAKO BETAURREKOAK DITUGU ZURETZAT

Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 63 07 53

PAGOLA

TXISTORRAREN IZENA

948 630 054
Alzateko plaza, 2
BERA

Kultur Egunak antolatu ditu Ibintza taldeak asteburu honetarako

Larunbatean txiste afaria izanen da

IBAN ISASI

Ibintza Kultur taldeak antolatutako Kultur Egunak abenduaren 3, 4 eta 5ean burutuko dira aurrten. Azkeneko urteotan garai honetan egin duen bezala, Ibintza taldeak Kultur Egunak prestatu ditu. Aurten herriko auzo ezberdinetan ekitaldiak antolatzea pentsatua da. Horrela, egitaraua eta ordutegiak oraindik guztiz zehaztuta ez badaude ere, honako ekitaldiak izanen dira.

Herriko trikitilariak kalejirak izanen dira eta artopil-jatea Herriko Etxeko ganbaran. Baita zinema emanaldiak, haurrentzat eta helduentzat ere. Txiste-afaria larunbatean izanen da. Hasera batean rock kontzertua antolatzeko asmoa zegoen, baina azkenean beran-



Ibintza taldeak auzo guzietara eraman nahi ditu aurten Kultur Egunetako ekitaldiak.

Artxibokoa

duagorako utziko da.

Birziklaiari buruzko hitzaldia izanen da Malerrekako Manko-

munitateko arduradun baten eskutik, baita haurrendako jokoak eta bazkaria ere. Egitarauaren

xeheetasunen berri, Xorroxin Irratia eta TT-PI-TTAPA eta Xaloe telebistetan emanen da.

Herri ttikietan kontabilidate berria sartzeko laguntzak emanen ditu Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamenduak laguntzak emanen dizkie kontabilidatean eta aurrekontuen kudeaketan berak ezarritako baldintzak oraindik bete ez duten 500 biztanle baino guttiagoko herri eta mankomunidadeei.

Toki Administrazioak eskatzen dituen baldintzak 2000. urterako bete behar dute 156 udalek (Nafarroan 276 daude). Kontzejuei urtebete gehiagoko luzapena emanen zaie.

Nafarroako Gobernuak oinarritzko informatika ekipamendua (ordenagailu eta inprimagailu) erosteko %80ko dirulaguntza emanen die udal erakundeei. Honetaz gain, udal langileak tresna hauekin trebatzeko 50 orduko ikastaroa ere emanen dute.

BEINTZako OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

EKAITZA kafetegia

COSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

MARTIKO

Gure baserrietako produktua.

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

Aurtengo ferietan ez zen zerririk plazaratu

Goizeko eguzkia aprobetxatuz jende aunitz hurbildu zen

PATXI IRIARTE

Hotzegiten zuen bai, baina asteetan ikusten ez zen eguzki goxoak hainbat jende ekarri zuen Doneztebeko ferietara. Goizean jarritako postuak ikusten ibili zen jendea. Aziendei dagokienez, aspaldiko partez ez zen zerririk ikusi merkatu plazan. Ardi eta ahare batzuk, behi gehixeago eta batzuek ere, zaldiak eta behorak ikusten ahal ziren. Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikanoren bertso saioa aditu ondotik, bazkalteko tenorea ailegatu zen. Herriko jatetxeek gainezka egin zuten ohi bezala.

Bazkalondoan zerua goibeldu zen eta euri langarra ere hasi zuten, aterpean egoteko aitzaki ederra zegoen. Honela, lehendik ere ikusmin haundia piztu zuen Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finala ikustera larehun bat lagun bildu ziren eskolako pilotalekuan. Han, saio eder baten ondotik, Ezkurrako



Aharia eta ardiak ikusi ziren Doneztebeko ferietan. Zerri aziendarifik, ordea, bakar bat ere ez.
Argazkia: Asier

Mikel Mindegia txapel berri baten jabe egin zen, ikusleen gozamenarako. Finala baino lehen, «Euskal presoak Euskal Herrira» zioen pankartea eta ikurrak plazaratu zituzten gazte batzuk.

Errekaren Eguberrietako supersaskiaren zozketa

Erreka elkarteak urtean egiten diuten ekitaldien gastuak nolabait

estaltzen laguntzen duen Eguberrietako supersaskiaren zozketako txartelak salgai jarri ditu bertze urte batez. Txartelaren prezioa 200 pezetakoa da eta abenduaren 19an, eguerdiko ordu batean zozketatuko da saskia elkarrearen egoitzan.

Jakina denez, saskia osatzeko herriko komertzioek beraien produktuak ematen dituzte eta Errekako Zuzen-

daritza Batzordeak eskerrak ematen dizkie leerro hauen bitartez.

Zozketaren bitartez ateratzen dena ezinbertzekoa zaio elkartari bere kirol eta kultur ekitaldiak prestatzeko. Horien artean daude mendi taldearen ateraldiak. Abenduaren 4, 5 eta 6an Panticosa aldeira joatekoak dira, Infernuko Gaina (3.081 metro) igoiteko asmoarekin.

Azienden berri eman behar da abenduaren 15a baino lehen

JAIONE ETA ALBA

Udalak jakinarazi du urteroko azizien adierazpena egin behar dela abenduaren 15a baino lehen. Deklaraziorik gabe, idazkariak ezin izanen du ziurtagiririk egin.

Ziklomotorren udal zerga

Heldu den urteko urtarrilaren 27a baino lehen ziklomotorrendako udal zerga ordaindu behar da. Erreziboaren bidez Iruñeko Trafiko Zuzendaritzan matrikulatuko da.

Hiri Kontribuzioak kobratzerakoan akatsa

1999. urtean Hiri Kontribuziakobratzerakoan izan zen akatsa dela eta, urriaren 7an erabaki zen portzentaiak jaustea. Oraindik dirua itzuli ez zaienei, beraien kontu korrontean sartuko zaiela jakinarazi du Udalak.

55 lagun bildu ziren Ulibeltzak elkarteko bertso afarian

Ulibeltzak elkartearen azaroaren 20an egindako bertso afarian 55 lagun bildu ziren. Bakailua, txuleta eta gazta jateaz gain, Manolo Arozena eta Mañukorta bertsolarien bertsoak –eta Mañukortaren txistak– aditzeko modua izan zuten, goizeko 1,30ak arte.

ETXANDI TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

Tel: 948 45 04 91

2000. urtean sartzeko presta zaitex kolore eta ehunetan dauden azken nobedadeekin

Harieruix LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

Ibarrola Mertzeria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Doneztebe
948450463

SALDIAS
HARATEGIA
Bertako baragi freskoetan espezializatuak

Karrika Nagusia 21
© 948 450191
DONEZTEBE

Euskararen Berriak

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuaren argitalpena
15. zenbakia • 1999-XII-2

Abendua kultur ekitaldiz gainezka

Beste urte batzuetan gertatu ohi den bezala, abendu alderako kultur ekintzak pilatu egiten zaizkigula dirudi. Horien berri emanen dizuegu, labur-labur, azken asteotan egin direnak eta hurrengoetan egingen direnak bilduz.

Leitza: Ipuinak kontatzeko teknikak. Euskara Zerbitzuak eta Guraso-Eskolak antolatua, Jose Mari Karrere ipuin kontalariak eman du, azaroko 3. eta 4. asteetan, 10 orduko saioan.

Goizueta: "Euskal Ipuinak" txontxongilo emanaldia. Azaroaren 13an egin zen Goizuetan, Euskara Zerbitzuak antolatuta. 50 pertsona inguru bildu zen gehienbat ume txikientzako den lan hau ikustera.

Leitza: Marmariren irratia saioa: Marmari Euskara Taldeak azaroaren 18an Karrape irratan etabaida edo tertulia antolatu zuen, "gazteak eta euskara Leitzaan" gaiarekin. Bertan herriko zenbait gaztek parte hartu zuten.

Goizueta: Ipuin kontalaria eskolan. Abenduaren 1ean, euskaraz zerbitzuak antolatuta, eta Goizuetako eskolak egun horretan antolatu dituen ekitaldi bere-



Ana Larretxea aranztarrak Himalaiaren inguruko proiektzioa eskainiko du abenduaren 17an.

ziekin batera, Jose Mari Karrere ipuin kontalariak DBHko ikasleei ipuinak nola kontatzen diren azalduko die, eta ondoren haur txikientzako ipuin kontaketa egingen du.

Areso: Euskararen Eguna. abenduaren 5ean hainbat ekitaldi egingen dira bertako kultur taldeak antolatuta: goizean talo-jatea, pilota eta dantzariak. Eguerdiko 12:00etan, euskaraz zerbitzuak ekarrita, HI-

KA taldearen "Arrautz Delikatua" antzeslana emanen da. Bazkaria ere izanen da, eta arratsalderako gelditzen dira trikitilariak, txokolatada eta musika.

Leitza: "Kultur Elejira". UEMAren kulturelejiraren

barruan, aurtien Himalaiaren inguruko proiektzio bat emanen du Ana Larretxea aranztarrak, abenduaren 17an, arratsaldeko 8:00etan. Emanaldi berean Leitzako mendi taldeak bere aurkezpena egingen du.

Leitza: "Dama eta Kardinala" antzerki lana. Leitzako Kultur taldeak antolatuta, eta Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, abenduaren 11n urteroko antzerki emanaldia egingen da, Leitzako zinean arratsaldeko 8:00etan.

Goizueta: "Bertso-trama". Euskara Zerbitzuak antolatuta, abenduaren 11n Bertso-trama egingen da Goizuetako gaztetxean, arratsaldeko 8:00etan. Gai jartzailerak Josu Goikoetxea eta bertsolariak Jon Maia eta Igor Elortza izanen dira.

Badago, beraz, urtea bukatzeko zer ikusia gure eskualdean. Agian, hurrengo urteetarako, programazioa urtean zehar gehixeago banatzea ere interesgarria izan liteke.

Gogoratu behar dugu, bestalde, ekimen eta proposamen berriak edo berritzaileak atsegin handiz hartzen ditugula eta edonork egin dezakeela proposamen hori. Beraz, burua pixka bat estutu dezagun eta ea hurrengo urteko programazioa oraindik hobea den.


Oinarriak

Euskararen lege berria

Hurrengo hilabeteotan Nafarroan sortuko da euskararen inguruko mugimendua. Oinarriak erakundeak, "Euskararen Lege Berria"ren inguruan nafar gizarteari astinalditxoeman nahi dio. Hori dela-eta, eta gure herrietara ere kanpaina hau iritsiko delako, orri hauetan tokiaegin nahi diogu ekimen honi, zenbait argibide emateko. Oinarriak zer den azaltzen saiatuko gara, eta ondoren kanpaina zertan datzan azalduko du.

Oinarriak, kanpaina honen antolatzailea, Nafarroako euskalgintzaren bilgunea da. Bertan biltzen dira Nafarroako Ikastolak, AEK, Euskara Teknikarien Sarea, Sortzen, Bertsolarien Elkarteak, LAB, EHE, eta abar. Bilgune hau, jakina, irekia da euskalgintzako talde guztientzat.

Duela zortzi-hamar urte eratu zen eta hasieran batez ere irrati euskaldunen lizentziaren eskakizunaren inguruan antolatu zen. Bere garaian zenbait agerraldi egin ziren nagusiki gai horretan zentratuta, Iruñean milaka lagun bilduz. Azken urteotan ere antolatu ditu mobilizazioak, prentsaurreak, jardunaldiak, ... eta bere



diskurtsoa eta lana gehienbat ofizialtasunaren gaiaren inguruan zentratuz joan da. Gaur egun, Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna eta euskararen lege berria dira bere lanaren ardatzak.

Oinarriak, bestalde, Nafarroa osorako sortu den mugimendua da, nahiz eta, arrazoi ezberdinak direlamedio, orain arte gehienbat Iruñerrira mugatu den bere

1986ko Euskararen Legeak Nafarroan inposatu duen banaketa.

eragina. Nolanahi ere, Oinarriak bilgunearen asmoa Nafarroa osoan eragitea da, eta horretan saiatuko da hilabeteotan eginen den kanpaina horretan, "Euskararen Lege Berria"ren

inguruko kanpaina hain zuzen.

Azaroaren 30erako, esaterako, Leitza deitu zen honen guztiaren inguruan hitz egiteko bilera, kanpainaren informazioa zabaltzeko eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranok osatzen duten eskualdean egin beharreko lanak nola antolatu eta nola egin erabakitzeko.

Taldearen aurkezpena

egin ondoren, kanpaina honen eta bere arrazoen berri ematen saiatuko gara, bi orrialdetan egiteak dakarren mugarekin bada ere.


Euskararen Lege "Zaharra"

Hasteko, esan behar da gaur egungo euskararen legea dela Nafarroan euskarak duen traba handienetako bat. Lege hau, 1986an Nafarroako Legebiltzarrean onartua, ez zen egin euskararen mesederako, bere aurrerakada gelditzeko baizik. Bere ondorioz kaltegarriena, zalantzarik gabe, zonifikazioa da, Nafarroa hiru zati ezberdinetan banatzen baitu. Hau da, lege honen arabera nafar guztiak ez gara berdinak, nafar guztiok ez ditugu eskubide berberak. Holakorik, seguraski, ez da beste inon ikusi. Ez behintzat gure inguru hurbilean. Aski da begiratu bat ematea hurbilen dauzkagun hizkuntza legeei: Euskal Autonomia Erkidegokoa, Kataluniakoa, Valentziakoa, ... estatu espainiarretik atera gabe. Horietan, lege perfektuak ez diren arren, ez da horrelako banaketarik planteatzen, nahiz eta lurralde horien barruan ere oso egoera soziolinguistiko ezberdinak izan.

Gure eskualdeko lau herriak, Leitza, Goizueta, Areso eta Arano, "eskualde euskalduna" delakoan sartzen dira. Beraz, herrietan euskara ofiziala da. Baina Nafarroako lurralderik handienean euskara ez da ofiziala eta herritarren hizkuntza eskubideak oso murriztuta daude. Gainera, ofiziala den tokietan ere askotan arazo ugari dago legea bera betetzeko.

Euskararen Lege Berria

Argi dago, beraz, ez dela



hori euskarak behar duen edo nafarrok behar dugun euskararen legea. Euskalgintzak, Nafarroako euskalzaleok, arazo horri aurre egin behar diogu, eta era positiboan egin behar dugu gainera, proposamen erakitzaile edo konstruktibobaten bitartez: euskararen lege berria proposatuz, alegia. Horixe da, hain zuzen, Oinarriak taldeak aukeratu duen bidea. Nafarroako Legebiltzarrari "Euskararen Lege Berria" proposamena aurkeztuko dio, baina horretarako 8.000 sinadurabildu behar ditu gutxienez.

Ekimen honen helburua, euskarak behar duen marko legal berriaren oinarriak fin-

Euskararen Lege Berriak proposatzen duen Nafarroa: euskara ofiziala lurralde osoan.

katzea eta lege berriaren beharra gizarteratzea da. Horretarako testu bat lantzen da eta oinarriko printzipioak finkatu dira, alor ezberdinetarako zenbait proposamenekin batera.

Testu edo proposamen hori bideratzeko "Herri Ekimen Legegilea" izeneko prozesua martxan jarriko da. Esan bezala, prozesu horrek 8.000 sinadura biltzea eskatzen du, baina Oinarriak taldearen helburua askoz gehia-

go biltzea da, nafar gizarteak euskararen aldeko apustu garbia egiten duela erakusteko. Erronka handia da, baina iaz ere "Bai Euskarari" kanpainarekin Sadar betetzea apustu handia zen eta lortu egin zen.

Sinadurahoriek biltzeko, jakina, lan handia egin behar da, eta euskaltzale guztien laguntza eta inplikazioa beharrezkoa izanen da. Gureak bezelako herrietan, gainera, herri oso euskaldunak direnez eta herritarren jarrera oro har oso aldekoa denez, sinadura asko biltzea espero liteke. Beraz, erronka hortxe dago, eta lanean inplikatzeko bagara lortu ere lortuko dugu.

Euskarazko produktuen katalogoa

Euskara zerbitzuak euskarazko produktuen katalogoa

Leitza,

Goizueta, Areso eta Aranoko etxeetan banatzen duen hirugarren urtea da. Aurtengo katalogoan, lehendik merkatuan zeuden produktu saldu eta interesgarrienez gain, urtean zehar merkaturatu diren euskarazko produktu berriak agertzen dira.

Katalogo honen bitartez, seme-alabei aukera eman nahi diegu euskaraz jolasteko, irakurtzeko, bideoak ikusteko, musika entzuteko eta ordenagailuan aritzeko. Etxean eta ikastetxean euskaraz egiteaz gainera, euren aisialdian ere euskaraz egiteko aukera zabaldu eta bultzatunahi dugu. Horixe baita behar duten hazia euskarak izan dezan benetako bizia.

Leitzaketa

Zenbat baserri daude Leitzaan? Zein da leitza auzorik zabalena? Zenbat jende bizi da Leitzaan? Zer etxetan egon zen Karlos errege-gaia? Zein da Leitza pilotalekuaren izena? eta zein da....? Galdera horien erantzunak ba al dakizkizu? Edo ikasi nahi al dituzu? Leitza hobeki ezagutu nahi al duzu? eta gainera jostatuz ikasi? ba-

da, laster aukera ezin hobe edukiko duzu horretarako. Leitza Kultur Taldeak eta Euskara Zerbitzuak produktu berri bat sortu dugu, herria modu atsegin batez ezagutzeko, eta Leitza buruzko hainbat kontu ikasteko.







“Leitza” eta “Lehiaketa”, bi ideiak produktu batean bilduta aurkitu ditzakezu. Erne ibili eta “Leitzaketa” izena ikusten duzunean arretaz begiratu. Izanen duzu produktu honen berri egunotan, dudik ez izan!

Eguberrietako tailerrak haurrentzat

Urtero egiten den moduan, aurrean ere eguberrietako oporraldietarako tailerrak antolatuko dira. Tailer hauek, abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra bitartean egingen dira, 6 saiotan banatuta. Saioak 3 ordukoak izanen dira.

Ohi den bezela, hiru begirale beharko dira Leitza-Aresorako eta beste hiru Goizueta-Aranorako. Begirale izateko interesa duenak, izena eman dezake bere herriko udaletxean, edo euskara zerbitzura deituta (948 610636), azaroaren 23tik abenduaren 14ra. Izena ematearkein batera, tailerrak nola antolatuko lituzkeen

KATALOGOA

1999

EUSKARAZKO PRODUKTUEN

azalduko duen programazioa aurkeztu beharko da

Aurkezten diren programa horien artean, udalek egokienak aukeratu dituzte eta horiei eskeiniko zaie eguberrietako tailerretan begirale

lana. Aukeraketa hori egin eta tailerrak hasi bitartean, begirale izanen direnek egun horietarako jarduerak, jolasak eta egitaraua prestatuko dituzte, euskara zerbitzuarekin koordinatuta.

MALERREKA

Auzolana arautzeko ordenantza onartu du Urrozko Udalak

Urrozko udalbatzak, berriki egindako bilkura batean, auzolana arautzeko ordenantza

fiskala onartu du. Horrela, herriko bizilagunek herriaren alde egin beharreko lanak

finkatuak gelditzen dire. Araudi berri hau udala osatzen duten zinegotzi guzien baiezeko botoarekin onartu dela.

Aldiberean, bertze berririk ailegatu da Urrozko udaletik, izan

ere, Mari Jose Larraiotz alkateak Jose Luis Iribarren zinegotzia izendatuta Alkateorde. Beraz, Jose Luisek beteiko du lanpostu hori legealdi honetan bederen.



Urrozko ikuspegia.

Eratsunen oihan probetxamendurako Zumarrezta eta Arbeako bi egur lote salduko dira

Eratsungo Udalak oihan aprobetxamendurako bi egur lote salduko ditu lehiaketa bitartez.

Enkantareen lehen lotea Zumarrezta inguruan dago eta honako zuhaitzak aprobetxatzen ahal dira: 3.002 alertze, 936 metro kubiko zur emanen dutenak, 4.381.884 pezetako prezioarekin (BEZa barne); 1.316 pinu, 326 metro kubiko zur emanen dutenak, 1.185.075 pezetako prezioarekin (BEZa barne) eta 148 izei gorri, 66 metro kubiko zur emanen dutenak, 448.729 pezetako prezioarekin (BEZa barne). Beraz, lote osoaren oinarritzko prezioa 6.015.688 pezetakoa da.

Bigarren lotea Arbea inguruan dago. Alde batetik, 1.968 alertze ditu, 695,4 metro kubiko zur emanen dutenak, 3.616.080 pezetako prezioarekin (BEZa barne) eta, bertzetik, 909 izei gorri, 282,8 metro kubiko zur emanen dutenak, 1.323.598 pezetako prezioan (BEZa barne). Lote osoaren oinarritzko prezioa 4.942.678 pezetakoa da (BEZa barne).

Proposamenak abenduaren 4ko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu behar dira Eratsungo Herriko Etxeko udal bulegoan.

Pentsio Planak



Hartu erabakia gaur eta urtero ospatuko duzu.

Gure bezeroek urteekin irabazten dute. Zeren Rural Kutxako Pentsio Planekin, hasieratik desgrabazio fiskal altuenaz gozatuko duzu, iraganean zure lasaitasuna seguratu duzu,

eta zuhur iraulketa politika baten ondorioz errentagarritasun interesgarri batetaz ongingo duzu.

Urtea bukatu baino lehenago, hurbildu zaitez Rural Kutxara eta gehien komeni zaizun Pentsio Plana aukera ezazu.

Zure neurritako Planak dauzkagu.

IKUS EZAZU NOLA IRABAZTEN DUZUN.



Gainera, zure Plana orain kontratatzean, opari magnifiko bat lortuko duzu.

10/99 • Entidad Gestora: Rural Pensiones C.I.F. A 78963675 • Entidad Depositaria: Banco Cooperativo Español C.I.F.A79496055

www.cajarural.com/navarra



GOIZUETA

Jon Maia eta Igor Elortza bertso-traman

Abenduaren 11n ariko dira bi bertsolariak Zentroan

ESTEBAN AROZENA

Jon Maiak eta Igor Elortzak herrian kantatuko dutela esatea notizia ederra da berez. Goizuetan sekulan ez eta Euskal Herri osoan ere gutxitan egin den saio mota izanen dela adieraziz gero, haunditu egingen da bertsozaileen grina.

Bertso-trama izenarekin ezagutzen da abenduaren 11ko ilunabarreko 8etan zentroan (gaur egun Gaztetxea) burutuko den ekitaldia. Funtsean, bertso saio arruntaren antzeko da, baina gai baten bueltan kantatu beharko dute Elortzak eta Maiak, hari berari segituz alegia. Gidoilari eta gai-jar-tzaile lanak Hitzetik

Hortzera programaren aurkezle den Josu Goi-ketxeak beteko ditu. Udal Euskara Zerbitzua da antolatzailea.

Herri Olinpiadak arrakastatsuak

Arrakastaikargarria izan zuen aurten ere azaroaren 13an Umore Onak antolatutako Herri Olinpiadak. Zazpi taldetan elkartutako herriko 56 gaztek (eta ez hain gaztek) erantzun zioten elkartearen deialdiari. Ondoren egin zen zikiro-jateak berriz, oraindik ere jende gehiago bildu zuen, ehun lagunetik goiti.

Ehiza denboraldia ongi doa

Ehizeko denboraldia dexentea omen doa.

Usoa asko igaro da, gelditu gutti xamar. Oilagorra ongi sartzen ari omen da, eta basurdezaleek berriz, ez dute kexarako motiborik, Argazkian, gatazka ikaragarrien ondoren Paskolek botatako 115 kiloko pieza.



Goian Paskolek botatako 115 kiloko basurdea. Behean, Herri Olinpiadetan parte hartu zuen zazpi taldetako bat.



ARESO

Euskararen Eguna abenduaren 5ean

Guraso Elkarteak antolatu du

JUANA M^e SAIZAR

Beste urte batez, abenduaren 5ean ospatuko da Euskararen Eguna. Bertan taloak, jan, trikitixa entzun eta dantzatu, antzerkia eta pilota partiduak ikusi eta herri bazkarian eta dantza saioan parte hartzeko modua izanen da. Euskararen Eguna Guraso Elkarteak antolatzen du.

Udal artxiboa antolatzeko lanak

Udal artxiboa gaurkotu, antolatu eta katalogatzeko lanak hasiak dira dagoeneko. Abenduaren 31 baino lehen bukatu beharko dituzte. Liburu zaharrena, 1600. urtekoa azaldu da eta kontu-liburua da.

Kontzertua

Plazatik Salarat



Plazatik Salarat taldeak espinete izeneko musika tresna –pianoaren gisakoa, itxuraz– ekarri zuen kontzertura.

Artxibokoa

Ganbara Musika taldeak emanaldi ederra eskaini zuen azaroaren

21ean elizan. XVII. mendetik hasi eta gaur egun arteko euskal kan-

tuak jo zituzten, barroko erara. Jendea gustoraz atera zen elizatik.

Mendi taldearen aurkezpena egingen da abenduaren 17an Zineman

Gasherbrum-II Bortzirietako espedizioaren diapositiba emanaldia eskainiko da

JOSEBA AZPIROZ

Abenduaren 17an, arratsaldeko 8etan, mendi taldearen aurkezpena izanen da zinemaren bertan. Bertan, Arantzako Ana Larretxeak emandako Himalayako Gasherbrum II mendira egindako igoeraren proiektzioa ere ikusi ahal izanen dugu. Taldea Aurrera K.E.ko sekzio bezala sortzen da, nahiz eta antolaketa eta funtzionamenduan autonomioa izan. Hainbat asmo azaldu dizkigute: hilero irteera bat antolatuko dute; hitzaldiak, proiektzioak, ikastarotak... antolatuko dituzte; Leitzako mendien gidatxo bategiteko asmoa dute; mendien inguruko bibliografia eta informazioa bildu behar dute, ondoren jendeari eskura jartzeko. Horretaz gain, eraikiko den kirodegian rokodromoa jartzeko eskatu diote Udalari.

Leitzako Udala Udalbiltzako kide

Udalak, azaroaren 25ean egindako batza-



Mendi taldeak Bertizko Parkera egindako irteeran 26 lagunek hartu zuten parte eta Leitzalarrera bizikletaz egindakoan 25 umek. Argazkia: DabidAnaut

rrean, EH eta EAko zinegotzien aldeko botoekin, Euskal Herriko Udaleta Udaltzaren Biltzarra Udaltzaren kide izateko erabakia hartu zuten. Udaltzaren helburu eta egitekoak dira, beste: Euskal Herri nazio bat dela aldarrika-

tzea eta bere egituraketa politikoa eraikitzeari laguntza ematea. Nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta euskal herriarguztienerabakietan parte hartze askean oinarriturik. Borondateak pilatu eta batzeko sor-

tu da eta herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea du beste helburutariko bat. Gainera Euskal Herria nazio berezkoa eta ezberdindu dela eta Nazio gisa ihardun nahi duela Europako geroko egituraketa nazioartean aldarrikatzeko konprometua hartzen du.

Leitzaketa joko aurkeztu dute Euskara Zerbitzuak eta Kultur Taldeak

Leitzako Kultur Taldeak eta Euskara Zerbitzuak Leitzaketa jokoaren aurkezpena egin berri dute. Leitzari buruzko 1.000 galdera ditu eta gai ezberdinak lantzen ditu: baserriak, festak, historia, toki izenak, esaerak...

Sortzaieen esanetan jokoaren helburua «Leitzaketa, bere historia, kultura, izaera, euskara, bizimodua... hobeki ezagutzeko bide erraz, atsegin eta entretenigarria herritarrei eskaintzea da». Laster salgai izanen da Astiz eta Mai-mur liburudendan.

flash

Dama eta Kardinala antzeslana abenduaren 11n

Abenduaren 11n, arratsaldeko 8etan, Ane Gabarain eta Felipe Barandiaran aktoreak, "Dama eta Kardinala" antzeslana eskeiniko digute Leitzako Zinemaren Kultur Taldeak antolatuta.

Autobiderako bidearen konponketa

Leitza eta autobidearen arteko bide konponketa lanetan ari den enpresak Iruñera joateko Uitziko bide zaharra erabiltzeko eskatu du, bai azkarago delako (semaforoetan denbora asko igaro behar da) bai kamioia hobeagoa dagoelako, baita lanerako traba eta arriku gutxiago izanen luketelako ere.

Zinema emanaldiak

Abenduaren 3 eta 4an, ostiral eta larunbatarekin, gaueko 10,30etan «La vida es bella» filmea eskainiko dute. Abenduaren 10 eta 11n berriz, ordu berean, «Gato negro, gatoblanco» filmea.

Etxeokandre elkarte

Fatima Ramos da berriki sortu den etxeokandre elkartearen lehendakaria. Ekitaldi batzuk antolatu dituzte dagoeneko.



TRIKOTA

Era guztietako telak eta hariak
Punto de cruz eta punto erdia egiteko
Gantxilloa

Elgoien 19 • LEITZA

CONSTRUCCIONES SALDIAS ETXEGINTZA OROKORRA

Teilatu eta fatxada berritzetan
espezializatuak

Pintura lanak eta gremio guziak

607 434397 • 619 058264 • LEGASA

NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA

Azpilkuetako Apaioako baseliza berritua San Frantzisko egunean zabalduko da

Erdi eroria zegoen ermita auzolanean moldatu dute herritarrek

TTIPI-TTAPA

Bi hilabete baino gehixeago lanean aritu ondotik, ortziral honetan, Xabierko San Frantzisko egunean zabalduko dute Azpilkuetako Apaioa auzoan Nafarroako zaindariari eskainitako baseliza berritua. Garai batean abenduaren 3an meza ospatzen omen zen ermitahonetan, baina eguraldia zela medio, mar txora aldatu zuten.

Felipe Franchez, Azpilkuetako apezak erran duenez, San Frantzisko egunean meza emanen du eta gero hameketakoa banatuko da. Ekitaldi xumea izanen da, baina herritar guziaz bildu nahi ditu.

LARUNBATERO AUZOLANA

Baselizaren moldaketa auzolanean eginda, larunbatero. Familia guzietako kideak xintxo-xintxo etorri direnez, materialaren gastua bertzerik ez dute ordaindu beharrik izan. Balleko Udalak zura jarri du eta Azpilkuetako herriak gainerako materialak,



Apaioako Xabierko San Frantzisko baseliza zaindariaren egunean zabalduko dute, auzolanean moldatu ondotik.

Diario de Navarra

porlana adibidez. Orain, kanpo nahiz barne aldetik bizpahiru aldiz emandako pintura ordaintzeabertzerikez da gelditzen. «Hori gelditzen zaigu ordaintzeko, baina gastua nolabait estaltzea espero dugu etalaguntzaren batizatean, taila bada ere» dio apezak. Baseliza erdi eroria zegoen, Felipe Franchezek erranetan: «zura jeta usteldua zegoen eta guziaz aldatu behar izan zen, bai tei-

latuan, baita barrenean ere... Behin lanean hasiz gero, horrela egitea zen onena».

San Andres Zigaurren

Aurtengo San Andres besta abenduaren 4ean ospatuko dute zigatarrek Zigaurre auzoan. Urtero bezala, mus txapelketa eta zikirojatea izanen dira eta ondotik kantu eta dantzaneke edo mozortu arte.


Bidelagun elkarteak hogeituroi lortu ditu

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko adineko jendeari laguntza emateko sortu den Bidelagun elkarteak hogeituroi lortu ditu momentuz. Beraien asti librea adineko jendea zaintzen prest daudenen artean aunitz gazteak dira. Norbaitek laguntzailerik izan nahi balu Bidelagunak elkarteekin harremanetan jarri.

Personaia

Hilabetea bete du Xoterok gose huelgan

Domisaindu Egunean hogeituroi preso sartu ziren gose huelgan, beraien eskubideak eta Euskal Herriko bake prozesuan parte hartu nahia aldarrikatuz. Horien artean Xotero Etxandi arraioztarra. Hau idazterakoan hamabortz kilo galduak zituen Xoterok eta hotz ikaragarria pasatzen ari zen. Gainera, azaroaren 24an Nafarroako Ospitalera eraman behar izan zuten gibela haunditu ondotik. Larrialdi Zerbitzuan proba batzuk egin zituzten eta berehala eraman zuten bueltan Iruñeko espetxera. Senideek erran dutenez, lehen ez zuen inoiz gibeleko arazorik izan. Hau irakurtzen duzuenean hilabetea izanen du gose greban.



Xotero ETXANDI

SOULE

Hileta artea

Tfnoak: 948 453444 • 608. 779903

ARIZKUN



MENDIALDE Jatetxea



AMAIUR • © 948453060



BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176



JATETXEA

© 948 580101

Santiago 1

ELIZONDO

Galarza

MENDI OSTATUA

Santiago 25 • © 948 580313

ELIZONDO

BAZTAN

Joxe Lasarte 73 urteko almandoztarrak alde batera utzi du aizkora

Azaroaren 14an egin zuen azken erakustaldia, lau enbor moztuz Aldazen

TTIPI-TTAPA

Joxe Lasarte, Alman-dozko Arbeaetxeko aizkolariak plazan jendearen aitzinean egindako azken erakustaldia egin zuen azaroaren 14al Aldazen (Ultzama). 73 urtetan, lau enbor moztu zituen hamalau minututan, honela, aizkorari eskainitako bizia alde batera utzi.

Lehendik basoan ibilia bazen ere, Joxe 30 urterekin hasi zen aizkoran, Miguel Zabaleta herrira etorritako leitzararekin batera. Hura afizionatua zen, eta el-

karrekin ibili ziren herriko bestetan, erakustaldiak eginez. 40 urterekin utzi zuen aizkora, baina 66 zituela hasi zen berriz. Bera baino hogeitau urte gazteagoa zen Agustin Argiñarena errazkindarraren kontra aritzeko prestatu zen eta irabazi egin zuen, gainera. «*Ilusioanuen, eda de horretanez baita inor ateratzen eta animoa ematen du horrek*» dio Joxek. Hurrengo urtean besoan mina sentitu zuen, beldurtu eta utzi egin zuen aizkora. Azken urteotan sei bat aldiz atera da plazara. Azkena, Aldazen, da-

goeneko hartua baitu aizkora uzteko erabakia. Ezin izan zuen iazko markaberdinu, baina katarroa izan zuen astebete lehenago. Gogor prestatu behar izan zuen proba: «*Minik ez, minik ez dut, baina hagitz gogorra egin zait prestaketa. Ia hiru hilabete eta erdi behar izan ditut egun honetarako, eta iaz gehiago egin nuen gutiago ari-tuta, aurtan gehiago ari-tuta baino*».

Aizkora utziko du Joxe Lasartek, baina aizkolariak plazan ikustekak inbidia pixko bat emanen diola onartu du.



Joxe Lasarte, entrenatzeko erabili dituen enbor eta aizkoraren ondoan.

Euskaldunon Egunkaria

Gugenheimera bisita antolatu du aurten ere Balleko Udalak San Francisco egunerako

Gan den urtean egin zuen bezalaxe, aurten ere Guggenheim-Bilbo museoa bisitatzeko bidaia antolatu du Balleko Udalaren Kultura Zerbitzuak abenduaren 3rako, San Francisco egunerako. Nafarroan besta eguna dela

eta Euskadiko Erkidego Autonomoan ez aprobetxatu nahi da txangoa egiteko. Autobusa goizeko 7,30etan abiatu eta 10,30ak aldera ailegatuko da Bilbora. Itzulera, berriz, arratsaldeko 6,30etan egingen da.

Biztanle kopuruari dagozkion dirulaguntzak jaso ditu Belleko Udalak

Nafarroako Gobernuo Toki Administrazioak biztanle kopuruari dagozkion aurten go dirulaguntzak banatu ditu herriz herri. Kasik 52 milioi jasoko ditu aurten Balleko Udalak.

Zehazki, Baztanek bi di-

rulaguntza jaso ditu: alde batetik, 4.001etik 10.000 biztanle bitarteko herriei emandakoa, 16.708.991 pezeta hain zuzen, eta bertze aldetik, 4.001etik 40.000 biztanle artean izateari dagokiona, aurtan 35.271.704 pezeta.

BIDEÇAIN

Arrain eta mariskoak
Eguberrietako enkarquak hartzen dira

© 948 580496 (denda)

© 948 453253 (etxea)

Jaime Urrutia 22 • ELIZONDO



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Euskarazko produktuen katalogoa argitaratu da

Haur eta gaztetxoei zuzenduta dago

TTIPI-TTAPA

Hirugarren urtez Nafarroako zenbait udaleta mankomunitateetako Euskara Zerbitzuek *Euskarazko Produktuen Katalogoa* argitaratu dute. Katalogo hau egunotan banatuko dute Euskara Zerbitzuek eta bertan, gaur egun merkaturatzen diren euskarazko produktuen berri ematen da. Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia­lagundu die tokian tokiko Euskara Zerbitzu eta mankomunitateei katalogo hau argitaratzen.

Azken urteotan, Nafarroako Euskara Zerbitzuek euskararen erabilera bultzatzeko hainbat ekimen martxan jarri izan dute. Hasieratik somatu izan dute erabilera bultzatzeko oztopoetako bat horretarako erabili ohi diren produktuetan zegoela. Hau da, haur

eta gaztetxoei beren aisialdian erabiltzen dituzten produktuak (joku eta jostailuak, liburuak, diskoak, bideoak...) gaztelaniaz dituztela. Hutsune horretatik abiatuta, euskarazko produktuen berri emateko beharra ikusi zuten Euskara Zerbitzuek, eta hortik sortu zen gero katalogoaren ideia.

HELBURU ZEHATZAK

Katalogoak zenbait helburu betetzen ditu:

Gurasoei ikustaraztea euskaraz eskolatzearekin bakarrik ez dela ziurtatzen haurra euskaldun oso, orkatu eta kulturalki erroturik hezitzea, honi laguntzen ahal dioten eta guzientzako eskuragarriak diren berte faktoreak ere kontuan hartu behar direla. Bertetik, gurasoei ikustaraztea aukerahaundiak daudelahaurreari euskal heziketa emateko, nahiz eta haiek euskaraz ez jakin. Eraberean,

haur eta gaztetxoei aisialdiko euskarazko produktuen eskaintza ezagutzera ematea eta euskarazko zerbitzu eta informazioaren bidez, gurasoak sentsibilizatzearaino, zerbitzu eta produktu hauen gainean izan litekeen eskaera ugaltzea, euskarazko zerbitzu eta produktuen merkatua indartuz.

Katalogoan agertzen diren produktuak haur eta gaztetxoei zuzendurikoak dira. Beraz, 3 eta 16 urte bitartekoei banatuko zaie.

Katalogo honek hainbat atal ditu: haur eta gurasoei zuzendutako aurkezpen eskutitza, produktuen atala multzo ezberdinetan banatua (joku eta jostailuak, bideoak, liburuak, musika, informatika, aldizkariak...) eta, azkenean, *Non Erosi* atala, produktu haiek eskuratzea erraztu nahian. Eskualdeko Euskara Zerbitzuek eta Baztan Balleko Udalak banatuko dute katalogoa.



Katalogoaren azala.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 63 08 99 - BERA

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

MAIXAN ETA VÉRONIQUE

64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19

FUNERARIA ZERBITZUAK

Lesaka-Donetztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak

Tfnoa: 948637404 • LESAKA

Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

ARGIBEI OPTIKA

☎ 948 581 391

Santiago 62 - ELIZONDO

Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

Miopatia eritasuna dutenen aldeko Telethon Eguna larunbatean

Batera Plataformaren elgarretaratzea ortziral arratsean Herriko Etxean

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Urte guziz bezala, el-karte eta eskol guziek parte hartzen dute Telethonen, miopatia eritasuna dutenen aldeko egunean. Aurten, abenduaren 4an, larunbatez, 2etatik 6ak arte.


Egitaraua eguerdiko 1,30etan hasiko da, helduentzako ibilaldia oinez eginez. Plazana hasiz, Aldunbera, Iratzeburua, Xantakoinborda, Lehenbiscaitik pasatuz eta plazarat itzuli. Martxa horrek bi orerterdi iraunen du. 2etan haurrak baloinak lotuko dituzte, Telethon hitza egiteko eta haur jokoak izanen dira. Oren bat beranduago, VT Tren ibilaldia haur eta helduentzat. 3,30etan sokatira hau eta helduentzat eta 4etan Muxikoak plazan denentzat. Dirua emaiten ahalko duzue Sarako postangoizeko 9etatik 12ak arte eta arratsaldean Herriko Etxeko lehor azpian arratsaldeko 1,30etatik 5ak arte.

Batera plataforma

Euskal preso politikoa sustengatzen dituen Batera Plataforma PNV, EH, EA, AB alderdi politikoen; ELA, LAB, EHNE sindikatuek eta bertze gizarte eta kultur talde aintzek osatzen dute. Bateraren helburua, hemendik urte hondarrera ahalik eta herritar gehien presoak etxeratzearen alde egiten diren elgarretaratzetan parte hartzea bulkatzea da.



Fernando Arburua eta Bixente Garzia, Zugarramurdi eta Sarako preso politikoa.



Artxibokoak

Hala nola, joan den azilaren 19an jende multzobat elkartu zen Zugarramurdiko Herriko Etxearen aintzinean. Ondoko elgarretaratzea abenduaren 3an, ortziralarekin, arratsaldeko 7etan Sarako Herriko Etxearen aintzinean iraganen da. Gogoan atxikiko dire bereziki bi herrietako presoak diren Fernando Arburua eta Bixente Garzia.

Ez dugu ahanzi behar frantses eta espainiol estatuetan preso diren 463 lagunetatik hogueiek gose greba mugagabea hasi zutela Omiasaindu Egunean. Beraz, ТТІРІ-ТТАРА argitaratzean hilabetea izanen dute jan gabe, horien eskubideak errespetatuak izan daitezten.

Atxiloketen aurkako salaketa

Joan den azaroaren 16eko gauean, Espainiako poliziak bi gazte la-

purtar atxilotu ditu Irunen, horien artean Aratz Gomez azkaindarra. Sarako Biga komiteak eta Gaztetxeak atxiloketa horiek eta bi gazteek pairatzen dituzten tratu txarrak salatu dituzte, beren sustengu azkarrena erakutsi nahiz.

Borda izeneko etxeei buruzko mintzaldi interesgarria

Iragan azaroaren 22an, Kultur Hamabortzaldiaren kari, biziki mintzaldi aberasgarria eskaini dauku Xabier Elosegi jaunak, Borda izena duten etxeetaz. Sarako etxeak noizeginkan izan diren, non kokuak diren eta nork sortu dituen, oren bat eta erdiz, galdera guzi horieri erantzuten entseatuda. Bixtan da, etxe guzietaz mintzatzea ezinezkoa suertatu da, eta beraz Xabier beren etxeri buruzko xehetasu-

nak nahi dituzte presuna guziak laguntzeko prest agertzen da. Ikerketa handia badu eginik Sarako etxeetaz, eta horrela informazio baliagarri aintz baditu bilduak azken hamabi urteetan. Horretaz gain, azpimarratu du saratarrak biziki harrera ona egin diotela, laguntza emateko beti prest agertu daitira, eta horrexegatik guziak eskertu nahi izan ditu.

flash

❖ Euskal Herriko Korallisten elgarretaratzea

Azaroaren 2lean iragan da Korallisten Biltzarra, hala nola, 600 bat kantari bildu diren Hazparneko elizarat, goizeko meza animatzeko. Ondotik bazkaldu dute Hazparneko ezker paretan, kantua berritz, present zen, bihotz hoztuak berretzeko.

❖ Lotoa Omordian

San Josepe eskol pribatuak antolatu du azaroaren 2lean, igande arratsaldean, Sarako Omordian loto delako besta. Jende andanak parte hartu du, eta bi irabazleak eskolako haurrak ditugu. Elorri Michelena irabazi du Futuroscopera bidaia eta Pantxika Mortalenak aste bat Espainian. Biba zuek!

❖ Granadako zubia

Istilarte auzoan den Granadako zubiak bertze itxura hartu du. Joan den hilabete herriko langileek pixka bat antolatu ondotik, argitua baita gauze.



Nafarroako produktu bereziak
Artisau produktuen denda
Eguberrietako loteak eta saskiak

Altzate 14 • BERA • Tel: 948 631151

AUTO ESKOLAK


SEMPER
 AUTOESKOLA

Eztegara, 22 • BERA
 Tfnoa.: 948 630 298

▶ %10 merkeago
 matrikula egitea

ESTETIKA


LURRINDENDA
 ESTETIKA

Beheko Plaza, 8
LESAKA
 Tfnoa.: 948 637 791

▶ %10 merkeago
 2.000 Pta. baino
 gehiagoko erosketa
 baldin bada

LENTZERIA



Parrokia, 11
DONEZTEBE
 Tfnoa.: 948 45 01 12

▶ %10 merkeago
 5.000 Ptatik goitiko
 erosketetan

Maite
 Lentzeria

Jaime Urrutia, 43
ELIZONDO
 Tfnoa.: 948 45 24 36

▶ %10 merkeago
 5.000 Ptatik goitiko
 erosketetan


TTIPI TXARTELAekin
 beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago
 irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA



948 63 11 88

Ibarburu
 erretegia


Iruña-Irun errep. 55. km

Tel.: 948 45 17 62

DONEZTEBE

Doneztebeko **IBARBURU jatetxeak** bi lagunendako
 bazkaria edo afaria irabazteko aukera ematen
 du TTIPI TXARTELA dutenen artean.

- *Eguneko menua, karta*
- *Gosariak*
- *Rinto bestak, komunioak*
- *Roadrila afari-bazkariak...*
- *Astearte eta asteazken bazkalondotik aitzin itxita*

Ibarburu jatetxean bi lagunendako **afari edo bazkaria**,
 zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean.
 Zozketan parte hartzeko, deitu abenduaren 14a baino lehen 948 63 11 88ra.

ARGAZKIAK

AYLA

BERA

Tfnoa.: 948 63 00 75

▶ %10 merkeago
 argazki makinetan
 izan ezik

FOTO GOIKO

BERA

Tfnoa.: 948 63 05 15

▶ %10 merkeago
 karreteetan,
 errebelatzeetan...

ZAPATADENDAK

Nerea

Oinetakoak

OINETAKOEN MODA

San Miguel, 2
DONEZTEBE
 Tfnoa.: 948 45 03 82

▶ %10 merkeago

OPARIAK

MAIMUR
 LIBURU ETX PAPERDENDAK

Elbarren, 15 • LEITZA
 Tfnoa.: 948 51 01 46

▶ %10 merkeago opari
 artikuluetan



• Gogoratu astero
 Bordatxorako 6 sarrera
 zozketatzen direla.

EZKONTZAK

JAIOTZAK

HERIOTZAK

Javier Elizalde Benitez, Lesakakoa, irailaren 16an.

Jon Larretxea Koskarat, Lekarozkoa, azaroaren 9an.

Iban Telletxea Iribarren, Berakoa, urriaren 29an.

Ainara Mihura, Sarakoa, azaroaren 17an.

Santiago Iraola Maritorea, Elizondon, azaroaren 9an, 82 urte.

Pedro Martin Zugarramurdi Istilart, Arizkungoa, azaroaren 21ean, 88 urte.

Martina Etxebertz Hualde, Erratzukoa, azaroaren 22an, 96 urte.

Jose Antonio Arribillaga Berasategi, Berakoa, azaroaren 11n, 63 urte.

Ramona Irazoki Irazoki, Berakoa, azaroaren 21ean, 88 urte.

Jose Mitxelena Aioroa, Iturengoa, azaroaren 18an, 68 urte.

Severina Iparragirre Apezetxea, Arantzakoa, azaroaren 10ean, 69 urte.



Jon APEZETXEA TAPIA

3. urteurrena (XII-3)

«Abenduaren 3an
gure lagun Jon
munduan galdua»



Hire lagunak



Helena GARRAUS REKONDO

*Gogorra da onartzea
gehiago ez zaituzula ikusiko
baina bizitzaren garen artean
ez zaituzte ahaztuko*

Berako lagunak



Gabino LEKUONA ASTIBIA

Heriotzaren lehenengo
urteurrena.
Meza, abenduaren 5ean,
eguerdiko 12etan Goizuetako
Elizan egingen da.



FAMILIA

Mikel Mindegia 50 urtetan irabazi du Nafarroako aizkolarien txapela

- Doneztebeko finalean, Nazabal izan zuen arerio nagusia
- Txapelketak uztea pentsatzen ari dela adierazi zuen Ezkurrakoak

Mikel Mindegia jantzi du seigarren aldiz Nafarroako aizkolarien txapela, joan den ortziralean Donezteben jokaturako final handian nagusitu ondotik. 50 urteak eginak dituen arren, sasoi betean dagoela erakutsi zuen Ezkurrakoak.

Mindegia zen faborito nagusia, Euskal Herriko txapelketaren finalean erakutsitako sasoi medio. Etxarri-Aranatzko Floren Nazabal eta Olagueko Antonio Senosiain zituen arerio nagusiak bere seigarren txapela janzteko. Antonio Jaunarena zubiatarrak eta Lekunberriko Jose Juan Barberenak osatzen zuten finaleko boskotea. Hamar enbor moztu zituzten, lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko.

HASERAN, NAZABAL ETA SENOSIAIN GOGOR

Lehenbiziko bi kanaerdikoetan ikusi zen Nazabal eta Senosiainek lanak emanen zizkiotela Mindegairi. Bi lehendabiziko enborretan Nazabal zen aitzinetik, Senosiain segundu batera eta Mindegia zortzira. Lehendabiziko 60 ontzakoan hartu zuen burua Mindegia eta Senosiain ere Nazabalen aitzinetik paratu zen, baina hiruen ar-



Mikel Mindegia lan handia egin behar izan zuen Floren Nazabali gailentzeko. Lan erditan bi segudu aurretik zen Etxarrikoa. Argazkia: Aitor

tean alde ttikia zegoen. Jaunarenak eta Barberenak bere lanarekin segitzen zuten, azken postuan ez gelditzeko intentzioarekin.

Lanerditan, Nazabal jarri zen buruan. Bi segundu beranduago moztu zuen lehendabiziko oinbikoa Mindegia eta Etxarrikoa baino 18 segundu beranduago Senosiainek. Hurrengo oinbikoan hartu zuen aurrea Mindegia. Zortzi segunduko aldea ateratzen zion Nazabali eta kasik minutukoa, gero eta gibelerago gelditzen ari zen Senosiaini. Be-

raz, txapelaren borroka bi aizkolarien artean gelditu zen eta Mielek, enborrez enbor denbora ateratzen joan zen. Mindegia 25 minutu juxtu behar izan zituen lana akitzeko, 28 segundu gehiago Nazabalek, 27 minutu eta 13 segundu Senosiainek, 29 minutu eta 12 segundu Jaunarenak eta 29 minutu eta 39 segundu Barberenak.


Mikel Mindegia kontent zegoen bere seigarren txapelarekin eta egindako lanarekin. «Egia esan, ez dakit zenbat txapela ditudan, bai-

na nire sasoirik onenean orain bezala urtero egin izan balira, igual hamasei izanen nituen». Halere, zalantzak agertu zituen etorkizunari buruz. Txapelketetatik erretiratuko denik argi eta garbi erran ez bazuen ere, gisa honetako probek lan handia eskatzen dutela eta nekatu xamarra dagoela botatu zuen Ezkurrakoak. «Pixko bat aspertuta nago eta maila honetan aritzeko sakrifizio handiak eta entrenamendu asko egin behar dira. Ikusiko dugu, oraindik ez dago erabakia».

Jubeniletan Arkaitz Iriarte gipuzkoarra nagusi

Jubenil mailako Euskal Herriko txapelketa ere jokatu zen Donezteben. Hiru aizkolarari aritu ziren lehen: Arabako Javier Yabara, Gipuzkoako Arkaitz Iriarte eta Arraiozko Asier Larretxea, Patxiren 17 urteko semea. Lau 45 ontzako eta bi kanaerdiko moztu behar izan zituzten. Iriarte izan zen jaun eta jabe proba honetan. Nagusitasun osoz joan zen enborrak moztzen, estilo ederra eta indarra erakutsiz. Berehala abantaila hartu zion Yabara arabarrari eta Asier Larretxeora indik gibelago geldituzen. Azkenean, gipuzkoarrak bi minutu eta 19 segunduko aldea atera zion Arabakoari. Asier Larretxeak ezin izan zuen proba akitu, eskuan zauria egin eta aitzinera ezin segitu.

Bi proben artean, Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea eskatu zuen pilotalekuan. Ekitaldi ixila egin ondotik, errespetu osoz atera ziren, jendearen txalo artean.



Asier Larretxea

Enborra	54'	54'	60'	60'	72'	72'	60'	60'	54'	54'
1. Mikel MINDEGIA	1'14"	2'56"	5'01"	7'47"	11'50"	15'44"	18'12"	20'50"	23'02"	25'00"
2. Floren NAZABAL	1'10"	2'48"	5'23"	8'05"	11'48"	15'52"	18'21"	21'13"	23'29"	25'28"
3. Antonio SENOSIAIN	1'17"	2'49"	5'19"	7'53"	12'06"	16'40"	19'26"	22'27"	25'00"	27'13"
4. Antonio JAUNARENA	1'14"	3'12"	5'46"	8'47"	13'24"	18'13"	21'09"	24'16"	26'52"	29'12"
5. J. Juan BARBERENA	1'38"	3'34"	6'12"	9'12"	13'47"	18'28"	21'21"	24'23"	27'16"	29'39"

Beti Gaztek irabazi du 680 kiloko Nafarroako sokatira txapelketa

- Lesakarrekin tiraldi guztiak irabazi zituzten Sunbillan
- Tiralari batzuk falta bazituen ere Areso bigarrena izan zen

AITOR AROZENA

Lesakako Beti Gazte taldeak lortu du aurten Nafarroako sokatira txapelketako lehendabiziko txapela. Sunbillan, azaroaren 14an burutu zen 680 kiloz beheko saio bakarra eta borts talde lehiatu ziren Nafarroako denboraldiko lehen txapelaren bila: Lesakako Beti Gazte, Areso, Imotz, Txantrea eta Ultzama. Aldez aurretik behinpein, Beti Gazte eta Areso ziren faborito nagusiak. Aurten, munduko txapelak izan dira bi taldeak. Bien arteko borroka espero zen eta halaxe gertatu zen. Lehenbiziko tiraldiak nahiko errez eraman zituzten bi taldeek, Txantrea eta Ultzamaren kontra. Bigarren tiraldia egokitu zitzaizen eskualdeko bi taldeei elkarren kontra eta ikusmin handiena orduantxe piztu zen, Sunbillako pilotalekuan bildutako ehun bat lagun artean. Pisuan berdintsu ziren bi taldeak, 647 kilo lesakarrak eta kilo bat guttiago Aresokoak. Lehenbiziko tiraldian aresoarrak hobekixiagotasi ziren, baina pixkanaka hasi ziren horri buelta ematen lesakarrak. Hiru minutu terdiiraun zuen tiraldia Beti Gaztekoek bereganatu zuten. Bigarrena ere lesakarren tza izan zen, errexago, minutu eta 46 segundutan.

Paxkual Taberna eta Agustin Zubietaren



Karmelo Mitxelena, Jexux Telletxea, Iñaki Igoa, Beñardo Iantzi, Joxe Telletxea, Igor Telletxea, Oskar Telletxea, Agustin Zubieta, Alejo Sarobe eta Paxkual Taberna, 680 kiloko Nafarroako txapelak.

Argazkia: Aitor.

agindupean, Agortxeberriko Karmelo Mitxelena, Beñardo Iantzi, Iñaki Igoa, Alejandro Sarobe, Makatzenekobordako Igor Telletxea, Joxe Telletxea eta Jexux Mari Telletxea eta Oskar Telletxea igantziarra aritu ziren 680 kiloko Nafarroako txapela irabazi duen taldean.

TIRALDI GUZTIAK IRABAZI ZITUZTEN LESAKARREK

Beti Gaztekin tiraldi guztiak irabazi zituen. Aresok, lesakarren kontrako bi tiraldiak kenduta bertze guztiak irabazi zituen, bigarren postua eskuratuz. Imotz izan zen hirugarrena, lesakarren eta aresoarren kontra galdu eta Ultzama eta Txantrearen kontra irabazi baitzuen. Txantreak Ultzamaren kontrako bi tiraldiak ba-

karririk irabazi zituen eta Ultzama bakar bat ere ez.

Mutilen 680 kiloko txapelketaz gain, emakumezkoen 520 kiloz beheko txapelketaren lehen saioa ere jokatu zen Sunbillan. Hemen ere esperientzia nabarmendu zen eta Munduko txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuen Sakanako taldeak tiraldi guztiak aisa irabazi zituen. Ondotik, Imotz, Txantrea, Burlata eta Atarrabia sailkatu ziren.

640 KILOKOAN MURGILDUAK

680 kiloko saio bakarraren ondotik, orain 640 kiloko txapelketan murgilduak daude sokatira taldeak. Azaroaren 2 lehen saioa egin zuten Atarrabian

eta hemen ere lesakarrak nagusitu ziren tiraldi guzietan, txapelak faboritoak direla erakutsiz. Larunbathoetan Txantrean aritzeak ziren eta San Francisco egunean erabakiko da txapela Larrainzarren. Hau akautu bezain laster, aste batez burutuko dira 600 kiloko hiru saioak: abenduaren 8an Sean Igoan, 8an Burlatan eta 1 In Latazan. Azkenik, 560 kiloko finala jokatu da abenduaren 18an Arbizun.

Nafarroako txapelketa honek garrantzia izanik, batez ere heldu den urteko urtarrean jokatu den Euskal Herriko txapelketari eta martxoan Munduko txapelketari begira prestatzen dira Beti Gazte eta Areso taldeak.



❖ Jacako Mendi Duatoia

azaroaren 14an burutu zen eta eskualdeko kirolariak eduki ibili ziren. Parte hartzaileek 6 kilometro lasterka, 18 mendi bizikletan eta azken biak lasterka egin behar zituzten. Hori nahiko gogorraz balitz, eguraldiak beldurgarria egin zuen ibilbidea. Aipagarria da 116 kirolarik emana zutela izena, horietatik 95 hasi zuten proba eta bertze 30 bat lagunek utzi zuten lasterkaldia. Helmugan, Patxi Vila beratarra izan zen onena, ordua eta hamalau minututan. Hirugarrena, NARBARTO Mitxel Aginaga izan zen, irabazlearengatik borts minutura.

❖ Inaxio Errandonea

pilotaria dugu eskualdeko ordezkari bakarra Euskal Herriko lau terdiaren barreneko txapelketako final laurdenean. Errandoneak, ongi irabazi zien Imaz eta Armandarizi azken laurdenean sartzeko. Ligaxkako lehen partiduan egurra eman zion Adarragan Bernari, 22 eta 3 irabaziz



Inaxio Errandonea

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

LESAKA

► **Abenduaren 2an**

ARKUPEAK

DONEZTEBE

► **Abenduaren 17an**

Urte akabailako besta. Xehetasunak 16. orrialdean.

KINTO BESTA

ETXALAR

► **Abenduaren 8an**

1935eko kintakoek bazkaria eginen dute Etxalarko bentan. Baztan, Malerreka eta Bidasoaldean sortuak daude gonbidatuak. Izena emateko: 948 580 155 edo 948 450 825.

ERAKUSKETAK

BERA

► **Abenduaren 17tik aitzinera**

Juan Gorritiren artelanak urtarrilaren 10a arte. Kultur Etxean. Antolatzaile: Labiaga ikastola.

SOLASALDIK

LESAKA

► **Abenduaren 11n**

Pepe Rei kazetariak «Garzón, la otra cara» liburua aurkeztuko du, baita Ardi Beltza aldizkari berria ere. Arratseko 7etatik aitzinera.

KULTUR EGUNAK

IGANTZI

► **Abenduaren 4tik 8ra**

Xehetasunak 13. orrialdean.

ITUREN

► **Abenduaren 3tik 5era**

Xehetasunak 17. orrialdean.

AGENDA PRAKTIKOA

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
11:00	Berriak (errep.) Herri-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
13:00	Berriak (errep.) Herri-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
17:00	Berriak (errep.) Herri-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak
21:30	Jokoa Solas	Laburmetraiak		Zuzenean	Herri-herri



Bortzirietako feriak ere TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Azaroaren 19an egin ziren Doneztebeko feriak, eta TTIPI-TTAPA TELEBISTA han izan zen besta egunaren xehetasunak zuei eramateko asmoarekin. Ortzegun honetan ere, abenduak 2, berdin eginen dugu Bortzirietako feriekin.

Bertzalde, "Tererekin solasean" saioaren bigarren txanda izanen da aste honetan. Oraingoan ere Malerrekako pertsonal bat hurbilduko du bere etxera, eta bidenabar zuenetara.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 120 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 80-85 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra560
1.koa540
2.koa520
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra570
1.koa550
2.koa530
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 27.000-30.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 32.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Ai, ama!»

Arantxa ITURBE

ZERBERRI

Lanbidez Euskadi Irratiko errataria da Arantxa Iturbe. Ez da idazlan bat argitaratzen duen lehen aldia, hau baino lehen idatzitako baititu ipuin bilduma bat eta narrazio bat ere.

Ai ama! izeneko liburu honetan ama izatearen gorabeherak ageri dira: erantzunkizuna, kezka... Idazleak berak ama izatean sentitu zituen aldaketa guztiak adierazi nahi izan ditu, baina batez ere amatasunaren alde ilunak

azpimarratuz. Izan ere, amatasuna nahiko mitifikatuta dago gaur egun. Iduri du haurra jaiotzean emakumea ama bakarrik izatera pasatzen dela automatikoki, eta derrigorrez ikaragarri kontent egon behar duela gainera. Arazo eta buruhaustea etxe barnean gelditzen dira, ordea. Ama izatearen esperientzia desmitifikatu nahi du Arantxa Iturbek, erromantizismoa eta topikoak alde batera utziz.

JAKIN BEHARREKOAK

Orain ere ahozabalka!



Logale edo asperduraren seinaleztat hartzen da ahozabalkoa.

Nahita ere, auniztan ezinezkoa izaten da ahozabalka aritzeari uztea. Gainera, behin baino gehiagotan gertatu ohi da toki eta momenturik txarrean aharrasiaren eraso; eta hori ez da ona izaten, asperdura edo nekearen seinaleztat hartzen baita. Baina, zergatik egiten da ahozabalkoa? eta, batekegindakoan, ingurukoek ere zergatik egiten dute?

Arnasketa automatikoa eta inkonstzienteada, bainan hala ere, batzuetan erregulazio lana ere beharrezkoa da. Nekea, logalea, edo asperdura sentitzean gorputzak mantsoago hartzen du arnasa. Horrelakoetan odolera karbono dióxido gehiago eta oxigeno gutiago iristen da. Arazo horri aurre egiteko konponbide eraginkorrena aho-zabalkoa da.

Beraz, ahozabalka aritzea beharbada estetikoki itsusia eta sozialki gaizki ikusia izan da, baina animaliak eta gizakiek behar-beharrezkoa dute. Horrelakoetan masailezuren mugimenduari ezin izaten zaie eutsi, aurpegiko gihar ugari uzkuritu egiten dira, begiak gorritu, eta negarmalkoren bat edo berteze ere ateratu ohi da.

Badira aharrasi egiteari

buruzko teoria gehiago, eta oraindik ez dago segurtasun haundirik ahozabalka aritzeari arrazoiak. Beraz, oraindik ere bada zer ikertu.

ZERGATIK KUTSATZEN OTE ZAIE ONDOKOEI?

Ahozabalkoen kontuan, hala ere, aharrasia sozializatzeke joera da harrigarriena. Hau da, batek eginez gero, ingurukoek ere egiten dutela. Ahozabalkoa egitea kutsatzen den zerbait balitz, ahozabalkoak ezingo liriateke sekula saihestu. Eta horiez da egia,

Batek egindakoan, ingurukoek ere zergatik egiten ote dute?

nekez, baina kontrola daitezke-eta. Izan ere, arnasketa, buruhezurraren behealdean -muinean- kokatutako nerbio-sistema bereizi baten arduradua da. Gune horrek gorputzeko berezko jardueren arduradua, baina kortex-arekin ere badu lotura, burmuineko zati konzientearekin, alegia. Horregatik, zati konziente horrek ere agindua bidal diezaioke arnasketa-sistemari, eta arnasketa kontrolatu egin daiteke. Gehienetan ahozabalkoa egitea borondatearen aurkako zerbaitenez, egitea ere bultzatu daiteke, pentsatze hutsarekin edo beste batzuek nolola egiten duten ikustean.

ELHUYAR TALDEA

DISKAK



«Tapia eta Leturia; Amuriza»

BIZKAIKO KOPLA ZAHARRAK
ELKARLANEAN

Bizkaiko koplak zaharrak, aspaldi sorturiko herri-kanta sorta ederra da, XIX. mende bukaeratik XX. mende hasierabitarrean folklorista desberdinek paperera pasatuak. Disko honetarako Xabier Amuriza bertsolari eta idazleak egin du denen bilduma, eta puntako musikariek jarri diete doinua kanta zahar hoieri: Soinu txikian Joseba Tapia, perkusioetan «Leturia», gitarrarekin Bixente

Martínez eta Mixel Ducau, mandolinarekin Bixente Martínez bera, eta ahotsetan kolaboratzaile zerrenda luze bat: Amaia Zubiria, Igor Elortza, Mikel Markez...

Antzinako herri eta kulturaren erakusgarri dira koplak zahar hauek. Izan ere, koplak gaur egungo berriemailearen funtzioa bete zuen bere egunean, plazako giroa berotu eta harrotzeaz gain, noski.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BERTSOAK

GOIZUETA

Abenduaren 11n

Bertsotrama: Jon Maia eta Igor Elortza. Arratseko 8etan Gaztetxean.

'ETXEAK ETA BIZITZAK'

AZKAINA

Abenduaren 3an

Mahaingurua: "Gazteak eta etxebizitza". Arratseko 8,30etan. Biltoki elkartearen.

ETXALAR

Abenduaren 4an

Bertsokantu afaria. Herriko Ostatuan, arratseko 9etan. 2.250 pta. Hendaiaiko bertso eskolako lau bertsolari gazte eta lesakako birekin.

BERA

Abenduaren 5ean

Herriarteko jokoak. Goizeko 11etan.

ERAKUSKETAK

BERTIZ

Abenduaren 12a

arte Nafarroako baso-erakusketak buruzko erakusketa Bertizko jaurrean. Antolatzailea: Aurkidi elkarte.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnoa. deitu behar da

Abenduaren 29tik

abenduaren 5era

Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

Abenduaren 6tik

12ra Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

Abenduaren 13tik

19ra Etxalar, Narbarre, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

Abenduaren 20tik

26ra Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
1.000 pezeta Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

IRURITA.
- Lur eremu eraikigarria salgai.
© 948 451 841

LEITZA. Pisu erreformatua salgai. ☎ 649 47 66 15.

LEITZA. Pisu salgai, prezio onean. ☎ 948 510 484.

LEITZA. 120 m²ko pisu zoragarria salgai. ☎ 948 510 346.

ARANTZA. Baserria salgai, bizitzeko prest. 25.000 m²ko lur-eremuarekin. ☎ 943 633 482.

ELGORRIAGA. Pisu salgai. 100 m² + 31 m²ko ganbara. Kalefakzioa eta sukaldea guziz hornitua. ☎ 948 637 571.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera haundia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

© 948 451 841

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA. Pisu hartuko gure errentan. ☎ 943 398 286 (goizez).=

LURRAK/ORUBEAK

107 SALDU

LESAKA. Biurranan lur-eremua salgai, Matxitenea ondoan. ☎ 948 637 121.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ARANTZA ZYRGINDEGIÀ

Jose Miquel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osia autoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

LANA

301 ESKARIAK

28 urteko gazte bat eskaintzen da edozein lanetan aritzeko. ☎ 948630726.

Esperientziadun andreak haurrak edo adineko jendea zaintzeko eskaintzen du bere burua. ☎ 948 631 137.

LANA

302 ESKAINTZAK

Biltegia lan egiteko jendea behar dugu. ☎ 948 631 394.

Ostalaritza lan egiteko jendea behar dugu. Aste-buruetan. ☎ 943 492 613.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Renault 6 autoa salgai. NA-AK. ☎ 948 635 087.

Peugeot 306 TD salgai. 37.000 km. Berri-berria dago. ☎ 948 450 333.

Ford furgon Pick Up salgai. NA-Y. 1.8 Turbo Diesela. ☎ 948 510 331.

Ford Mondeo salgai. NA-AK. ☎ 948 510 558.

MOTORRA

502 TAILERRAK

BERABI tailerrak
© 948 631 445 • BERA

Citroen C-25 D, Ford Mondeo TD, Nissan Vanette.

ETORRI ETA IKUSI NISSAN PRIMERA BERRIA

MENDAUR MOTOR
© 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Peugeot 306 TD, Defender, C15 D, Astra GSI, Clio D, Suzuki Long Body TD, Suzukiak aukeran.

GANIX
Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

601 OPARITZEKO

Collietxakurkumeak oparitzeko. ☎ 948 453 110.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Sabueso arrazako 7 ehizi zakur salgai. Hilabete bat dute. ☎ 948 630 288.

15 ardiren **deretxoak** salgai. ☎ 948 451 696 (goizeko 9etatik 9,30etara).

20 ardi ernari salgai, euren deretxoekin. ☎ 948637 285 (9etatik aitzinera).

Setter zakurkumeak salgai. Arraza onekoak. Deitu arratsetan. ☎ 948 635 097 (Ettxalar).

Leitzalarrea mendiko zeriak salgai. Ezkur, gaztain eta artoarekin gizenduak. Nahi diren pisukoak. Badaude txakurkumeak ere. ☎ 948 510 669.

Cocker Spaniel inglesarrazako zakur beltza galdu da Lesakako Pagolleta inguruan. ☎ 948 637 432.

ANIMALIAK

603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
© 948631362 • Leg. 13 • BERA



DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Etxeoltz markako zisterna salgai. 4.000 litrokoa. Trakzioa eta bi bonba. ☎ 948 592 016.

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

© 948 63 11 88

Herriko ofiziale, lantegi, denda, ostalari eta profesionalen telefonoak

Liburu hau heldu den urte hasieran **banatuko da** TTIPI-TTAPArekin batera **etxe guztietara**. Hortaz, joan den urteko TELEFONO GIDAn zure telefonoa ez bazen agertu, edo aurten telefono eta helbide berriak baldin badituzu, **deitu lehenbailen**.





URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeo, bidali sobra zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu
igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko.
Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Urko Garcia Alemanek 6 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Zorionak eta muxu bat aita, ama eta Alaitzen partetik.



Maria Telletxea Arraztoak 6 urte bete ditu azaroaren 20an. Zorionak eta muxu aunitz amaxo, aitaxo eta Josebaren partetik.



Gartzaingo Maria Telletxeari, aunitz urtez bere seigarren urtebetetzean. Berako Maite eta Xabierren partetik.



Jone Urriza Otxoteko lesakarrak 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Ahielene Urriaza Otxoteko lesakarrak 9 urte beteko ditu azaroaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Jose Jabier Zelaieta beratarrek azaroaren 28an 47 urte bete ditu. Zorionak lankideen partetik.



Igor Reteqi Bangoetxea arraioztarrak azaroaren 16an 10 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama eta Oihanaren partetik.



Oihane Goienetxe etxalartarrak azaroaren 26an 6 urte eginen ditu. Zorionak atxa, ama eta familia osoaren partetik.



Coloradoko Patxikito Iriarteri zorionak Lesaka, Sunbilla eta Doneztebeko familiaren partetik, berexiki bere ama Pakitaren partetik. Etorri bodara!



Jon Migeltorena Leiza lesakarrak abenduaren 2an bete ditu 7 urte. Zorionak!! Aita eta ama.



Arantzako Aintzane Iturrira Iparragirrek 14 urte bete ditu azaroaren 29an. Aunitz urtez kuadrilaren partetik. Aupa Latzen!



Beñat Txopereña Matxikote igantziarrak abenduaren 8an 8 urte beteko ditu. Aunitz urtez Oihana, atxa eta amaren partetik.



Jone Iriarte Elizagoienek abenduaren 6an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat aita, ama eta Itsasoren partetik.



Alaia Altzugarai Legazkue lesakarrak abenduaren 1ean 9 urte beteko ditu. Zorionak familia guziaren partetik.



Aloña Lasaga eta Maite Lekuona beratarrek urteak bete dituzte azaroaren 27 eta 28an. Zorionak hogeita hamar urte horiengatik. Lesakako lagunak.



Jon Olaizola Otxoteko lesakarrak 3 urte beteko ditu abenduaren 8an. Zorionak etxekoen partetik.



Ane Arburua Sagastibeltza k urtea beteko du abenduaren 12an. Aunitz urtez, berriuts! Etxeko guzien partetik.



Amaia Sanchez Torresek abenduaren 4an 7 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Amaia Sanchez Torresek abenduaren 4an 7 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Ane Gururtxaga Errandonea lesakarrak abenduaren 10ean 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez!



Iñigo Apezetxea Iparragirrek 2 arantzarrak abenduaren 2an 13 urte beteko ditu. Ongi pasa! Familiaren partetik.



Aintzane Pikabea iribarren arantzarrak 11 urte bete ditu azaroaren 21ean. Aunitz urtez familiaren partetik.



Ima Artola leizarrak urteak beteko ditu abenduaren 3an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Itxaso Labiano burlatarrari zorionak ahizpa Iratxe, Jexux, Mariou eta Lentejoren partetik. Aupa preziosa!



Garazi Reteqi altsasuarrari zorionak guraso, ahizpa Izaro, Lesakako familia eta Igantzioko atabiren partetik. Aupa Rea!



Estitxu Elgorriaga lesakarrak azaroaren 29an 15 urte bete ditu. Zorionak lehengusinen partetik. Ja, ja, ja, ja, jai!



Rocío González Bayones elbetarrak 2 urte bete ditu azaroaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat aita eta amaren partetik.



Pedro Telletxea arraioztarrak urteak beteko ditu abenduaren 14an. Zorionak familiaren, eta berexiki Juanaren partetik.



Iñigo Sarobe donamariarrari zorionak abenduaren 10ean 7 urte beteko dituelakoz. Zorionak familiaren, eta bereziki Izaskunen partetik.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Mikel, Jon eta Oskar: ez nekien nola eskertu Goi-zuetatik Hernanira ekarri eta gosari paregabe hartara gonbidatu izana. Nahiago nuen zuzenean pote batzuetara gonbidatu, baina auskalo noiz ikusiko garen berriro. Mila esker eta hurrena arte. Oiarztungo ardi galdua. Ane.

Erratzuko Zapiri: zorionak zure 20. urtebetetzean Zubipuntako edaleguzien partetik. Ea noiz uzten dituzun haurkeriak alde batera.

Beee, beee, ardiak marrika eta zu Etxaurin, noski. Zorionak.

German: artaldeatxikitzen. Zeregin? Ardi gehiago erosi ala daudenak hobekia-go zaindu. Mimiko bat nahi duzula? Tori baaa!

Erratzuko Iñaki Zapi, alias Gussi. Orrazkera tradizional hori aldatu. Zorionak.

Zorionak **Arraiozko Virginia Oteizari,** abenduaren 5ean 14 urte beteko dituelakoz. Zorionak kuadrilaren partetik, eta segi beti bezain alai.

Zorionak **Zigako Jose Mari Magirenari,** abenduaren 6an 15 urte beteko dituelakoz. Zorionak neska batzuen partetik.

Donamariako Ttetto, Case, Eneko eta Hitachiri zorionak azaroaren 6, 16, 25 eta 24an urteak betetzen dituztelakoz. Afari bat konbitzeko esperoan gaude! Ultzamako zuen azukre koskorren partetik.



IGANTZIKO HERRIKO ETXEA


Igantzioko Udalak, 1999ko azaroaren 12an egindako bileran administrari laguntzailearen amatasun bajaren garaia betetzeko deialdi publikoa egiten du, oposizio librearen bidez administrazio kontratuarekin eta lanaldi osorako administrari laguntzaile bat hartzeko.

- Eskaerak egiteko epea: 1999ko abenduaren 31ko eguerdiko 12ak arte, Igantzioko Herrikoetxeo idazkaritzan.

- Deialdiaren oinarriak interesatuen esku daude Herrikoetxeo idazkaritzan.

Igantzin, 1999ko azaroaren 24an.

ALKATEA,
Eduardo Migelena Legasa



ARRAINGORRI

Arrain eta itsaski ultraizoztuen

B I L T E G I A

S A L T O K I A

Salmenta zuzena
Hosteleritza zerbitzua

- Rape
- Legatza
- Kokotxak
- Ganbak
- Zigala
- Otarraina
- Otarrainxkak
- Txipiroiak

- Txibiak
- Muskuilu beteak
- Ganba
arrautzeztatuak
- ... etabar.

Itsasotik zure etxera

Zalain auzoa • Bera (Nafarroa) • Telefonoa: 948 631 527



Almaco Baztan

ETXEGINTZA ETA
SANEAMENDU
MATERIALAK

© 948 580 104 / 948 580 366
ELIZONDO

↓ Zeramikak



↓ Sukaldeak



↓ Velux-ak



↓ Erremintak



LAN ARRISKUEI AURRE HARTZE

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA NEGOZIORIK ONENA DA

Lan arriskuak murriztean era guztietako abantailak

dakartza osasuna, lan giroa eta ekonomiarako.

Horrela jokatzuz, denok irabazten dugu

segurtasunean eta azkeneko etekinetan.

CUESTION DE TODOS



PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES
O ENON KONTUR

difusión publicidad



INSL

Instituto Navarro
de Salud Laboral

Nafarroako Lan Osasunaren Institutua

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra